



ARGIA



Euskahaldunei isuna

**ENKA ALVAREZ ETA ARKAITZ ZARRAGA
ESKUBIDEAK PRAKTIKAN
JARTZEAGATIK ZIGORTUAK**



**"Artea ez dut gure
egunerokoaren
barruan ikusten"**

12 | IRANTZU LEKUE



**Bizkaiko
egoitzetako grebaz
liburua ARGIAk**

22 | EKONOMIA



**"Nahikoa da, utzi maitasun
erromantikoaren
propaganda egiteari"**

32 | BRIGITTE VASALLO

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #239
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS
- 18 | ANE ABLANEDO
- 19 | ENEKO OLASAGASTI
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | AINGERU EPALTZA

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 27 | GORPUTZA: MINBIZIA
- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: ITZIAR ALKORTA
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

12 | IRANTZU LEKUE

Artista eta aktibista gasteiztarra
elkarriketatu du Miel A. Elustondok.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

**Abeltzain txikiek
animalista eta beganoei
erantzun nahi diete**

Pello Zubiria Kamino

22 | EKONOMIA | BIZKAIKO EGOITZETAKO GREBA

**Zergatik izan zen
hura borroka feminista?**

Onintza Irureta Azkune

28 | EUSKARA | E. ALVAREZ ETA A. ZARRAGA

**"Hizkuntz eskubideak
bermatzen ez dituzten
bitartean talka egongo da"**

Lander Arbelaiz Mitxelena

32 | SEXUALITATEA | BRIGITTE VASALLO

**"Nahikoa da maitasun
erromantikoaren
propaganda egiteaz"**

Amaia Lekunberri Ansola

42 | KULTURA | IBON RG

**"Zer hoberik herriminen
aurka, kanta berriak
egitea baino?"**

Gorka Erostarbe Leunda

46 | KULTURA

**Artziniegako
Museo Etnografikoa
hil-hurren**

Josu Narbarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre,
Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano,
Iñigo Igartua, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasola, Maite Arrieta, Olatz Korta

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da
Argia honako enprekin batera:
Antza inprimategia
Iametzta komunikazio zerbitzuak
Adur informatika zerbitzuak


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



AMARRUEN HIRIBURU

ARGAZKIA | AITOR ASPURU / AIARALDEA.EUS
TESTUA | AXIER LOPEZ

Urtebetez espetxeratu zuten Alfredo Ramirez txioak idazteagatik. Beste urtebe-
tez izan da kartzelan Julen Ibarrola, errotuladorez kalean margoketa bat egitea-
gatik. Galder Barbado eta Aitor Zelaia espetxeratu dituzte 2014 eta 2015ean inoiz
gertatu ez ziren erasoak egiteko "materiala gordetzeagatik". Espainiako polizia
ohi bati etxean suzko 27 arma motz eta 9 luze atzeman dizkiote etxean, horietako
batekin tiro egin zion familia baten baserriari. Poliziak ez du espetxea barrutik
ezagutzen. Izan ere, Amurrión justiziak amarru ari du aspaldi. Irudian: amurrioa-
rren ongi etorri beroa Ibarrolari igandean, espetxetik atera berritan.



**Alaba Donostiako ospitaleko
Arantzazu haurrentzako ospitale
psikiatrikoan ospitaleratu eta
bertan ez dagoela mediku
euskaldunik salatu du guraso batek**



**ALABARENGAIXOTASUNAREN
SUFRIMENDUAZ
APARTE, ARTATZEN
DUTENEGIN EUSKARAZ
EZIN KOMUNIKATZEA
NEGARGARRIA DA**

Guraso bat, Hizkuntz
Eskubideen Behatokian



**NOLA IZANGO DIRA
MEDIKU HORIEK ONAK UME
GAIXO HAU BERE HERRIKO
HIZKUNTZAN BERE HERRIKO
ERIETXEAN ULERTZEN EZ
BADUTE. EBROTIK BEHERA
OSO MEDIKU ONAK IZAN
DAITEZKE BAINA HEMEN
PEDIATRA EZ EUSKALDUNEK
JAI DUTE ONAK IZATEN**

@dudulixaxu1



**BESTE FROGA BAT
EUSKALDUNOK BIGARREN
MAILAKO HERRITARRAK
GARELA AGERIAN
UZTEN DUENA**

@itargipetik



**EGOERA MINGARRI HAUEK
EKIDITEKO EZINBESTEKO
DA EUSKARAZ
KOMUNIKATZEKO
GAITASUNA IZANGO
DUTEN PROFESIONALAK
EGOTEA, ERABILTZAILEEN,
PAZIENTEEN BEHARREI
ERANTZUNGO DIENA**

@behatokia



ESKUBIDESOZIALENKARTA.COM

Pobreziaren aurkako ekimena atzera bota dute

ARGIA @argia

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak aurkeztutako pobreziaren aurkako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren aldeko Herri Ekimen Legegilea atzera bota du Eusko Legebiltzarrak, "EAJk, PPK eta PSEk entzungor egin ostean 51.000 herritarri", Steilas sindikatuak salatu duenez.

Nafarroako Legebiltzarrak ekimenari ateak ixtearekin bat, 2018ko martxoan abiatu zuten babes sozialeko sistema publiko eta kalitatezko baten aldeko herri-ekimen legegilea EAEn. 51.000 herritarren sinadurak lortu dituzten arren, alderdiek ez dute herri-ekimena aintzat hartu eta ez da tramitera onartua izan.

Joan den astean aurkeztu zuen ekimena Legebiltzarrean Janire Landaluze herritarrak. Landaluzek politikariei adierazi zien egungo pobreziaren eta bazterkeria sozialaren mailak kezka larria eragiten duela, horri aurre egiteko dagoena ez dela nahikoa eta sistema aldatzeko beharra dagoela. Aldaketa horretarako erreminta izan nahi du herri-ekimen legegileak, ulertuta babes sozialerako sistema publikoa indartzea dela gakoa.

OTSAILAREN 13AN, MOBILIZAZIOA

EAJ, PP eta PSEren ezezkoaren ostean, ekimena aurkeztu zuten herritarrek adierazi dute "eztabaida berriro ere modu faltsuan" itxi dutela legebiltzarkideek eta berriro ere "eztabaida publiko eta demokratikoari ezetza" eman diotela. Hala, mobilizaziora deitu dute, "Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren eta etxebizitzaren inguruan eman beharreko eztabaida publikoa saihestearren kontra". Otsailaren 13 goizean, Bilbon, egin dute giza-katea, EAJ, PSE eta PPren egoitzak batuz. ●

GAIZKI ERRANKA

Ardi beldurtiak



SANTI LEONÉ
@ororostorm

“Independentismo katalanak faxismoa itzarri du”. Esaldi bakarrarekin, nola zuritzen diren jarrera batzuk, nola banatzen diren ardurak: faxismoa indar naturala da, lo arina duen dragoi bat, Katalunia aldeko aldarrikapen neurrigabeek zirikatu dutena. Gauzak nola kontatzen diren.

Nola kontatzen den Espainiako trantsizioa ere. Eta nola konta litekeen. Eredu negatiboen bidez, konparaziora: ez Grezian bezala (han erreferenduma egin eta monarkia kanporatu zuten), ez Portugalen bezala (han iraultza izan zuten), ez Espainiako II. Errepublikan bezala (orduan ere faxismoa itzarri eta Espainia salbatzera behartu zuten). 19. mendeko berrezarkuntza bezala, hori bai: bi alderdi nazional handi –kontserbadorea eta ez hain kontserbadorea–, monarkiaren begiradapean.

Frantziako iruditeri politikoan, herritar guziak ibili ziren lasterka herria gidatzen zuen askatasunaren gibeletik, herritar guziak aritu ziren nazien kontrako erresistente. Mitoak dira, jakina. Gezurrak, nahiago bada. Baina kultura politiko jakin bat osatu dutenak. Espainian, herritar guziak ardi beldurtiak dira, agintean daudenen ardurapean jostetan aritzen ahal diren haurrak, baina ez sobera ozen, piztia itzarriko baita bertzenaz.

Muturreko eskuinak ematen du beldurra Frantziako kultura politikoan; Espainiakoan, ezkerak. Eta horrela, edozein keinuk balio dezake herritar patriota normal anitzek barnean daramaten piztia esna dadin. Gogoz kontra, betiere. Ezker erradikalak behartuta. Muturreko eskuinik inon ez den bezala, muturreko ezkerre zentrotik hurbil-hurbil hasten baita, eta, tarteka, alderdi ez hain kontserbadore hori kutsatzen baitu.

Ardi beldurti nahi gaituzte. Baina zenbaitek larrua bertzerik ez dute arditik. Gizotso ugari daude hemen. Eta autoritarismoaren ilargia, bete-betean Europako zeruan. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



*GREBA!

ADUR

“ETXEA GARBITU EGIN BEHAR DA”

FELIX ALONSO, BILBOKO BIKARIO NAGUSIA

Deustuko saletarretan hainbat lagunek jasandako sexu-abusuen harira, bikarioak dio bi hanka-sartze handi egin dituela Elizak. Batetik, gertatutakoa “isildu eta isilaraztea”. Bestetik, “persona hori” –14 ikasle ohik salatu duten irakaslea– lekuz aldatzea, pertsonaren barruan doalako arazoa. Biktimak “erdigunean” jarri behar direla adierazi du Alonsok, “entzun, onartu eta harrera ona egin”. Salestarren ardura dela dioen arren, Elizak garbiketa sakona behar duela uste du: “Argi eta garbi, etxea garbitu egin behar da”.

ETB (2019/02/06)



Kolpisten xantaia ekonomikoak



JUAN MARI ARREGI

Zuzenean ari gara jarraitzen sistema politiko kapitalista eta kolpista baten saiakera, Venezuela ekonomikoki geldiarazi eta miseria, gosea eta konfrontazio zibila sortzeko, modu horretan haien esklabo bat boterean jartzea justifikatzeko. Sistema hori AEBe-tako presidente Trumpek gidatzen du. Venezuelari finantza-blokeoa ezarri dio eta “behin-behineko presidente” bat auto-izendatzea agindu du, hautestontzietatik igaro gabe, Maduro presidente legitimoa kanporatzeko. Kolpea zurtzeko, bere inguruko gobernuak eskatu die babestu dezatela. Hala, eskuineko gobernuen baiezkoez gain, Europar Batasuneko (EB) gobernu sozialdemokrata gehienena ere jaso du, baita Espainiako Sánchezen gobernuarena eta EAEko Urkullurena ere.

EBk dio giza eskubideen alde egiten duela, eta Venezuelatik bi milioi erbesteratu irten direla gosearen eta miseriaren ondorioz. Aldiz, erbestera bost milioi palestinar joan badira ere, Israel babesten segitzen du. Giza eskubideengatik hain kezkatuta dagoen EB horrek, GKE-en itsasontziei Mediterraneotik irtetea debekatu die migratzaileen bizitzak salbatzeko. Eta migrazio hori eragozteko hesiak ere jaso ditu, Saudi Arabiarekin lehentasunezko akordioak sinatu eta herrialde hartara armak esportatzen dituen bitartean, gero Yemenen erabili dituzten.

Garbi dago, Venezuelaren kontrako erasoaldiak ez du zerikusirik venezuelarrak pobreziatik ateratzearekin. Erasoaldi hori hasi dute Venezuelan dagoen sistema politiko eta ekonomikoa, Trumpen –eta bere sateliteen– kapitalismo neoliberalaren guztiz kontrakoa delako. Eta bidenabar, petrolioak duelako. Ez dute zalantzarik izango militarri esku hartzeko. Lehenik ekonomikoki itoko dute herrialdea, gero esku hartu. Hori bai, ohiko fronte mediatikoaren laguntzaz. ●



Trantsizioak eta ziklo politikoak

MIKEL ASURMENDI @masurmendi

Politikak berezko hizkuntza garatu du sistema demokratikoan. Esaterako, “trantsizioa” hitza usu erabili ohi da. “Ziklo politikoaren aldaketa”, trantsizioarekin erlazionatutako kontzeptu bat da. Espainiako trantsizioa mugarri adierazgarria izan da azken 80 urteetako eraldaketa politikoa ulertzeko. 1936ko Gerra Zibilaren ondorioz, herritarrek demokratikoki hautatu zuten II. Errepublika deuseztatua izan zen, Francok demokrazia zanpatu eta 40 urteko diktadura ezarri zuen.

40 urteren ondoren, erregimena higiturik, monarkia absolutua (1975-1978) ezarri zuten frankistek. Ez zen trantsizioarik ez ziklo politikoaren aldaketarik izan, hala ere, trantsizioa demokratikotzat joa izan zen. Nazioarteko estatu nagusien oniritziarekin “demokrazia” garaitu zen. Monarkia absolutua monarkia parlamentario bilakatu zen trantsizioan.

Adibidez, Francoren erregimenaren aurka borrokatu zuen PSOEk Espainia NATOtik ateratzeko kanpaina egin zuen. Espainia 1982ko maiatzaren 30ean sartua zen NATOn, eta PSOEk 1982ko urriako hauteskundeetan Espainia NATOtik ateratzeko kanpaina egin zuen. PSOEk irabazi zituen bozak, boterera iristeko bide demokratikoa urratuz. Ordea, 1986ko urtarrilaren 31n, erreferenduma egin zen Felipe Gonzálezren eskutik, eta Espainia NATOn geratu ere, PSOEren aldeko botoei. Hego Euskal Herrian, bozemaileen %60k ezezkoa eman zion NATOri.

30 urte geroago, ETaren ziklo armatua amaitu zenean, hainbat alderdi politikok bigarren trantsizioaren beharra aipatu zuten. NATO barruan egotearen kontrakoak eta herrien autodeterminazioaren aldeko ziren alderdiak.

Arestian azaldutakoa gauza jakina da. Axioma da. Duela 40 urte, politikaren esparru teorikoan zintzotzat jotzen zen premisa, hots, demokraziaz arrazoitzeko abiapuntua. 40 urteko demokrazian, bortxarik gabe dena posible zela esan zieten erreboltariei. “2010etik ETak bakea baino ez du bilatu”, esan dute berriki Sorzabal eta Pla etakideek.

Premisa zaharra errepikatu da: “Bortxaren monopolioa estatuarena bada, ez dago ziklo politiko berririk, ez inolako trantsizioirik”. Ez Kuban ez Venezuelan ere. Herri eraikuntza hizpide, ahapaldi hau heldu zaigu Habanatik: “Euskal politika ez da etorriko alderdi baten ordeztu bestea nagusitzearekin, baizik kultura politikoa-ren aldaketa orokorrarekin”. Demokrazian –elkarrekin– bizitzeko berebiziko axioma. Oso sinplea idaztea, zailagoa praktikatzea. ●



ERRAUSTEGIAREN AURKAKO EKIMENA

DONOSTIA. Gipuzkoa Zutik taldeko kideek Donostiako udaletxearen aurrean jarrita dagoen norian "Erraustegia ez" dioen pankarta zabaldu dute. Aste berean, erraustegia egiten ari diren enpresek iritzi publiko kontrolatzeko antolatu duten komunikazio plana argitaratu du GuraSOsek. Urbaser, Meridiam, Altuna y Uri, Moyua, Murias eta LKS-Mondragon enpresek komunikazio talde bati eman diote Gipuzkoak Ingurumen Gunea eufemismoz bataiatutako erraustegi konplexuaren irudi ona gizarteratu eta sortu diren kontrako iritziei gaina hartzeko ardura.

DANI BLANCO

BIOANIZTASUNA 300



urte baino gehiago ziren Lapurdin azken kastorea ikusi zutenetik. Bertrand Couillens naturalistak iaz hauteman zituen haren arrastoei jarraika, azkenean basozainek lortu dute bideoz grabatzea Errobi ibaian, Uztaritze inguruetan.

18 kastore utzi zituen libre 2003an Nafarroan Pays de Castors talde ekologistak. Lapurdira iritsi dira orain.

Galder Barbado eta Aitor Zelaia atxilotu dituzte

ARGIA @argia

Pasa den astean, Aitor Zelaia atxilotu zuen Ertzaintzak Gasteizen, eta Galder Barbado Bonilla Amurrion, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz. Madrileran eraman zituzten deklaratzera eta isolamendu egoeran izan dituzte. 2014 eta 2015 urteetan egindako sabotaje batzuk leporatzen dizkiete.

AURREZ ATXILOTUA

Ez da lehenengo aldia Barbado atxilotzen dutena. 2016an Guardia Zibilak eraman zuen preso Gasteizko kuartelera, Urduñan izandako Gazte Dandada jaialdian terrorismoa goratzea egotzita, baina ordu gutxiren buruan askatu zuten. Aurrez ere poliziaren jazarpena salatu izan du gazteak.

"UTZI BAKEAN EUSKAL HERRIA"

Elkarretaratze jendetsuak egin dituzte atxiloturiko bi gazteak bizi diren herrietan, "Utzi bakean Euskal Herria" lelopean. Ernai gazte antolakundearen esanetan, "Ertzaintzaren eta Auzientzia Nazionalaren arteko kolaboraziorik arbuigarrienaren ondorioz, euskal gazteria jo puntuan jarri dute berriro ere". Altsasukoen auzia eta Julen Ibarrolaren kasua aipatu dute.

JULEN IBARROLA, ASKE

Bestalde, otsailaren 10ean atera zen espetxetik Julen Ibarrola gaztea, errotulkiarekin pintaketa egiteagatik urtebeteko zigorra bete ostean.



JON LOPATEGI. Hil egin da Muxikako bertsolari eta bertsolaritza irakaslea. 1958an egin zuen lehen plaza Gernikan eta geroztik 50 urte pasa egin ditu plazan. Bertsolaritzara gai sozialak ekartzen aitzindari izan ziren bera eta Jon Azpillaga. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa irabazi zuen 1989an.



LAN ISTRIPUA. Otsailaren 4an zendu da 43 urteko langilea. Zizurkilgo Construcciones Metálicas ULA enpresan jazo da lan heriotza, baina langilea Grupo Itari-ren baitako Begiralia aholkularitza-enpresako kidea zen. LABen arabera, aurten Euskal Herrian lan istripuek eragindako bosgarren heriotza da.



UMEEN BABESA. Indarkeria matxista kasuetan, erasotzaileari seme-alabaren zaintza partekaturako eskubidea ukatzeko lege proposamena tramiterako onartu du Eusko Legebiltzarra. Genero biolentziagatik prozedura judizial bat irekita duen gurasoak zaintza partekaturako eskubiderik ez izatea da helburua.

ABELTZAIN TXIKIEK ANIMALISTA ETA BEGANOEI ERANTZUN NAHI DIETE

Abeltzain txikiek bizi duten une berezia, irudi batean laburbilduta. Baserritar batek bere behiak daramatza bidean aurrera. Ezkerreko sorotik, 1.000 behiko granjen publizitate-afixa erraldoia ("Abereak, benetako profesionalen utzi") eta ondoan tipo aberats bat nekazariari oihuka: "Zaharkitu baboa!". Eskuineko zelaitik militante gazte batzuek, "Haragia = krimena" dioen banderola eskuetan, garrasika: "Nazkagarria!". Abeltzainak, erdian: "Ez da erraza nekazaritza herrikoia bidea".

PELLO ZUBIRIA KAMINO @pellozubiria

Confederation Paysanne sindikatu frantsesaren aldezkaritari Samson egin marrazkian dager mundu aberatseko abeltzain askok bizi duten estuasuna, alde batetik bazter guztiak bereganatzen eta zanpatzen dituen agroindustria, bestetik beganoen, animalisten eta antiespezisten presioa.

Laborari eta abeltzain txikien eredu defenditzen dutenek, alegia frantsesez *agriculture paysanne* eta Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbarak *laborantza herrikoia* deitzen dutena, argudio sail osoa dute antolatua aspalditik azken markadotan nagusitzen ari den nekazaritza industrialari aurre egiteko. Aldiz, erronka berria dute giza mugimendu aurrerazaleen artean askoz hurbilagoak dituztenei, animalien eskubideak defenditzen eta haragiari uko egitea aldarrikatzen dutenei, erantzutea.

Gure inguruan, batik bat ELB Euskal Herriko Laborarien Batasunak egin du urteotan abeltzainen posizioa indartzeko ahalegina. Orain Confederation Paysannek *-Conf-ek-* liburu batean bildu ditu gai minbera honen inguruko argudioak: "*Baserritarrek diotena gizakia- ren eta aberearen arteko harremanaz. Abelazkuntza herrikoia aldarrikatuz*". PDF formatuan libre dago eskuragai, eta frantsesik ez dakiena ere interneteko itzulpen tresnekin moldatuko da.

Liburuaren lehen erdi osoa nekazarien lekukotasunei gorde zaie. Behi, ardi, behor, oilo, antzara eta beste animaliak hazi, ugaltu eta jendeen elika-

gaitarako hiltzen dituzten 46 nekazari- kontatzen dituzte beren bizipenak animaliekin... eta horiek hiltzea edo baita haztea bera galarazi nahi dieten militanteekin. Hona Cote d'Or departamenduan behi eta txekorrak hazten dituen Emile Jeannin gaztearen lekukotasuna.

"Begano hitza lehenbizikoz 2016an entzun nuen, *Steak (R)evolution* filmaren egile Franck Ribiere zinegileak esplikatu zizkidanean film haragizalea kaleratu ostean jasandako erasoak. Barre egin nuen, irrigarriak iruditzen zitzaizkidan argudioak.

Gero niri tokatu zitzaidan irainak jasotzea, mail su-piztaileak, baita heriotz mehatxuak ere. Ezin nuen ulertu bortizkeria hura. Ezagutzen ez ninduten batzuek nolaz kritikatu zezaketen nire lana, ezagutzen ez zutena, eta, batik bat, niri heriotza opa izateraino gorrotatu nire ideiak? Hiltegi mugikor baten proiektuarekin ari nintzen, ehizaki erreza bihurtu nintzen muturreko militanteontzako, mehatxu eta irainak etengabe bidaltzen dizkirate. Erasok, gainera, abeltzain guztion kontrakoak dira, are ulergaitzagoa egiten zaidana.

Badugu gure harremana animaliekin; izen bana ematen diegu, laguntzen jaiotzatik heriotzaraino beren beharrak zainduz, hori uztartuz haien produktuetatik bizitzeko dugun beharrari. Militante horiek ez dute soportatzen guk 'erdiko bidea' hartzea haientzako ongia eta gaizkia direnen artean, gaizkia abeltzaintza, ongia horren debekua.

Eraso horiek balio izan didate hausnartu eta gure lanbideaz beste moduan hitz egiteko. Ez daukagu zertan lotsatu edo ezkutaturik. Ikasi behar dugu bortizkeria fisiko edo hitzezko horietatik babesten, hitz egiteari ez uko egiten, gure esperientziak partekatzen, gure ikuspegiak, denok elkar errespetatuz".

ABEREAK MAITATU, HIL ETA JAN

Jeanninek kontatu du L214, L26life, Brigitte Bardot bezalako taldeen presioa, abereak jatea edo hiltzeaz gain abeltzaintza bera debekatzea ere nahi dutenena. Baina haragiaren eta hazkuntzaren aurkako presioa baserritarrei badatorkie hurbilagoko jendeengandik ere, sarritan borroka askotan kide edo are AMAP, saski eta hurbileko komertzioan erosle eta lagun dituzten beganoengandik. Ez mehatxuzko presioa, bai milaka urteko lanbidea bera kolokan jartzen duen pentsaera bat hedatuz.

Paradoxikoki, baserritar txikiek dute, animalia eta lurra ondoen zaintzen dutenek, nozitzen presioa gehien: hurbilenekoak dira sarritan beganismora jotzen dutenak, eta, aldiz, agroindustriak lasai ederrean jarrai dezake populazioaren gehiengoa zabor-jakiz elikatzen, mundua monolaborezko soroz eta artifizialki elikatutako behi, txerri, untxi edo oilozko granja erraldoiez betez.

Conf-eko nekazariak, zorionez, ez dira erori beganoen edo antiespezisten giblean agroindustriaren konspirazioa baizik ez dagoela sinesteko arriskuan.



EMILE JEANNIN

BERE BEHI ETA TXEKORREN ARTEAN.

Ohartu dira badituztela argudioak eta horietan diren kritiketatik ikasteaz gain erantzun egin behar dietela.

Argudioetako batzuk etikari eta moralari dagozkio: "Inmoral da animalia plazeragatik hiltzea", "hiltegiak itxi behar dira", "animalia espezieak gizaki espeziearen maila berean daude", "abelazkuntza debekatzeko borroka aurrerapen moralaren bilaketa da, esklabismoaren edo gizonezkoaren nagusitasunaren aurkako borroka den modu berean".


Begano eta antiespezisten beste argudio sail bat nekazaritza, lurraldea eta kultura ikusteko ereduaz ari da: "Posible da landarez soilik elikatzea, ez dugu abereak hazi beharrik", "abelazkuntza debekatzeko aurrerapena da planetarentzako", "ganadugintzako baldintzak txarrak dira animalien ongizatearentzako".

Badituzte ingurumenari dagozkion argudioak: "Abereak elikatu beharrak konkurrentzia egiten dio gizakiak elikatu beharri", "abelazkuntzak deforestazioa dakar", "hainbat kutsadura eragiten ditu uraren eta airearen kalitatean", "klimaren beroketari laguntzen dio, negutegi eragineko gasak isurtzen ditu", "ur kopuru oso handiak xahutzen ditu". Baita osasunari buruzkoak ere: "Haragia kantzerigenoa da, gaixotasun kardio-baskularrak eta obesitatea eragiten ditu".

Munduaren hiritartze orokorraren poderioz, kaleko jendeek egunerokoan ikusten dituzten animalia bakarrak maskotak dira, dagoeneko ez dira bizi jaiotzen ikusi, hazten lagundu, elikatu, hil eta jan behar dituzten abereekin. Elikagaiak -ia denak- urrundik eta paktetan heldu diren garaiotan, anima-

lien bizimodua eta heriotzari buruzko irudipenak arras aldatu dira. *Conf*-ek dioen moduan, "hirietako jendeak landa eremuetatik eta nekazarietatik urrundu egin dira eta honek ekarri du hiritarrek ez ezagutzea nola funtzionatzen duen bizitzak [izaki biziak]; horri gehitu behar zaio agro-elikaduraren industriak bere eskandaluekin zabaltzen duen mesfidantza".

Laborari txikiek eztabaidatu nahi dituzte laboreak eta abereak uztartzen dituen nekazaritzak gizarteari dakartzkion onurak. Nekazaritza sistemaren oreka ekologikoari, zuhaitz, zelai, soro eta abere uztartuz. Landa eremuen bizimoduari, enplegu eta ekonomiarekin. Lurralde antolamenduari, kultur ondareari, paisaiari, bio-aniztasunari (hesi biziak, zelaiak, lurzoruen emankortasuna, bazkalekuak...). ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Irantzu Lekue

ARTISTA AKTIBISTA, ARTIBISTA GARAIKIDEA

“

IRUDIEN MUNDUAN BIZI GARA, BAINA PUBLIZITATEAREN MENPE DAGO ARTE HORI

”

Gure artearen izen berrietan tokia egin du Irantzu Lekuek. Gazte izanagatik ere, gora handiko ibilbidea du egina, aintzat hartzeko modukoa oraintxe, geroak ekarriko duen ederragoaren hazi. Erakusketa bat jasotzeko garaian mintzatu gara artibistarekin.

TESTUA | MIEL A. ELUSTONDO
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

Zein momentutan zaude?

Lan pila dut esku artean, eta momentu gozoan nagoela esango nuke. Gasteizen ARTgia Sorgunea ez dugu ireki zaharra, eta jada, hamazazpi erakusketa ditugu aurreikusita. Gainera, hitzaldiak, performance-ak, aurkezpenak... Bada mugimendua, beraz. Nire lanari dagokionez, nire artelanak erakusteko aukera izan dut han eta hemen, eta horma-irudiak ere egiten ari naiz. Aldi gozoa.

#FemRights erakusketa ikusi dizugu azkena, Gasteizko Oihaneder jauregian. Zein gorputzaldirekin ireki ohi duzu, eta itxi, erakusketa?

Irekitzerakoan, ilusioa eta urduritasuna izaten ditut, biak. Ikusleak nola hartuko ote duen, kezka izaten dut. Nik neure barrutik egin dudana artelana ulertuko ote duen jendeak. Izan ere, historian zehar, artea ulertzeko zailtasunak izan ditu jendeak, artearen errepresentaziotik urrun bizi da. Esate baterako, #FemRights erakusketan azalpen testuak ipini genituen artela-

nen ondoan, haiek ulertzen laguntzeko. Hala ere, interesgarria iruditzen zait jendeak bere-bere interpretazioa egitea, nork bere ondorioak ateratzea, horixe da-eta artearen helburua, pentsaraztea. Jendearen interpretazioek, askotan, artelana osatu egiten dute. Baliteke artistak helburu jakin batekin egitea artelana, eta ikusleak, aldiz, beste era batera ikustea. Interesgarria da.

Eta erakusketa ixterakoan, zer dio zure barruak?

Alde batetik, pena izaten dut. Alabaina, erakusketa leku jakin batean hilabete baino gehiago erakusten egon ondoren, beste non edo non erakutsi pentsatzen hasten naiz. Eta, jakina, lan berriak sortzeko gogoarekin! ARTgia Sorgunean, esaterako, proiektu pila dugu esku artean; horma-irudigintzan, batez ere. Adibidez, oraintxe, Zallan ari gara, proiektu parte-hartzaile batean lanean. Arangureneko historiari buruzko horma-irudi bat egiten ari gara, emakumea eta industria lotuz. Nire lanarekin lotura duten gaiak, biak ere. Beraz, gustura.



Irantzu Lekue

GASTEIZ, 1987



Artista multidiziplinarra. Margo-lanak, argazkiak, bideoarte lanak nahiz instalazio artistikoak lantzen ditu. Artibismoa du ezaugarri, salaketa oinarri. Sari garrantzi handikoak irabaziak ditu, eta esaterako, horien artean dira Santander Fundazioaren Videotalentos Saria, Canal Fundazioaren Argazki Memoriak Saria, eta 2016ko Welcome Donostia. Iralekue.com-en ageri dira artibista honek egindako hainbat lan. ARTgia Sorgunean ari da gaur egun, zenbait lagunekin batera.

Parte hartzea sustatu duzu hainbat horma-iruditan: Murgian, Zuiako Jai Alai pilotalekuan, Ubiden, edo Gasteizko Mendebaldea Institutuan.

Bai. Izan ere, parte-hartzeak gauza bat dakar, besteak beste: parte hartzen duenak lana bereganatu duela. Bestalde, parte-hartzearen bidez, jendeak adierazi nahi duena islatu ohi dugu. Jendeak artelanaren sormen prozesuan parte hartzea artea ulertzeko modu aberasgarria iruditzen zait. Elkarlanak denok aberasten gaitu.

Horma-irudi handi horietako bat egiten duzularik, nola parte hartzen du jendeak? Aldamiora igo eta margotzen?

Kar, kar... Ez, margotzen bakarrik ez. Zallan, esaterako, baita lanaren kontzeptioan ere. Ni ez naiz Zallakoa ez Arangurenkoa, ez dut hango berri. Han bizi direnek, aldiz, herria ezagutzen dute, eta herriaren historia. Haien parte-hartzerik gabe, nire ikuspuntua arrotzarena izango zatekeen, kanpoko bisitariarena. Parte-hartzea sustatzeko bilerak egin ohi ditugu. Lehenengoan, ideiak eta gaiak plazaratzen dira. Bigarrenetan, ideien arabera irudiak biltzen ditugu, edo konposizioak egiten hasten gara, zehaztutako ideia eta gaiak horman nola azalduko liratekeen asmatzen hasteko; horren arabera, hormaren krokisak eskaintzen dizkiet herritarrei, eta zirriborratzen hasten gara, hala irudiak nola koloreak.

Gasteiz hiribidean, horma-iruditza bat margotzeko proiektua zenuen iaz. Udazkenean, zure asmoaren kontra egin zuen Arabako Arkitektoen Elkargoak, presioa egin zuen han eta hemen, baita sare sozialen bidez ere. Azkenean, uko egin zenion proiektua gauzatzeari.

Esango dizut gauzak nola izan diren. 2017an lehiaketa publiko baten deialdia egin zuen Gasteizko Udalak. Ordu arte, zuzenean esleitzen zituzten horma-irudiak. Orain bi urteko deialdiaren arabera, berriz, hiru proiekturen deia egin zuten, eta hirurak irabazi genituen. Lehiaketa publikoan. Hala ere, zenbait gorabehera administratibo tarteko uko egin behar izan genion bi proiekturi, eta bakarrarekin egin genuen aurrera, *Ongi etorria* izenekoarekin.

Zenbait horma aztertu genituen hirian, bat begiz jo, eraikineko komunitatearekin adostu, horma-irudia egiteko kontratua sinatu, materiala alokatu... eta, orduan, Arkitektoen Elkargoaren

ordezkariak Arabako egunkari baten azalean kontra agertu zitzaizkigun, eta hiru egunez, bururatu zitzairen txarre-na zabaltzen jardun zuten. Are gehiago, horma-irudia margotu nahi genuen eraikineko bizilagunekin hitz egin zuten, beldurtu zituzten... Ez zuen zentzurik horrela ibiltzeak, eta uko egin genion horma-irudia margotzeari.

Esango nuke arkitektoek egin zutena ez zela batere serioa izan, prentsa bidez adieraztea beren gogoia. Ez serioa, ezta egokia ere. Lehiaketa publiko bidez esleitutako proiektua *El Correo* eta Vozcento erabiliz gelditu nahi izatea erabat desegokia da. Elkargoaren izenean hitz egiten zuten, baina elkargoko hainbat kide guregana gerturatu dira elkartasuna adierazi eta elkargoak erabilitako formak salatzeraz.

Bizilagunak beldurtu zituztela esan duzu.

Bitan eman zuten bozka. Lehenengoan, hamaikak baietz esan zuten; bakarrak, ezetz. Bigarrenetan, zortzik baietz, eta seik ezetz. Horma-irudia Gasteiz hiribideko eraikin horretan egiteari uko eginagatik ere, ez dugu proiektua baztertu. San Marti auzoko ikastolan margotuko dugu.

Genero ikuspegia guztiz presente dago zure lanetan.

Bai. Esate baterako, *#FemRights* erakusketan eskubide sozialei buruz ari nintzen, eta bereziki, emakumearen eskubideei buruz. Hor, emakumearen ikusezintasuna, estereotipoak, ahalduntzea eta kultura guztietan jaso dituen mutilazioak landu nituen... Unibertsitatean ikasten ari nintzenean ere tratatu txarrak aztertu nituela gogoratzen naiz. Sasoi hartan margoz baliatu nintzen. Azkeneko urteetan, generoa sakonago lantzen joan da, nire bizitzan jasandakoek eman didaten ikuspuntua kontuan hartuta. Emakumea ez beste gaiak ere landuko ditut, jakina, baina emakumearen ikuspuntutik.

Zer da artibismoa?

Zuk egiten duzun artea definitzen duen hitzetako bat omen.

Artibismoa zer den? Aktibismoa, artearen bidez! Kar, kar... Ez da guk asmatua!

Eta arte irisgarria?

Begiz ez ezik, gainerako zentzumenez ere ikusteko moduko artea, dela ukimenaren, usaimenaren edo entzumenaren bidez. *Ongi etorria* horma-irudia, adibidez, soinuduna izatekoa zen.



IRALEKUE.COM

Arte garaikidea egiten duzu, eta diren eta ez diren diziplinak lantzen dituzu: bideoa, margoa, instalazioak, eskultura...

Gaur egun, nahastu egin ohi dira diziplina guztiak. Badira artista batzuk diziplina bakarrean aritzen direnak. Niri, berriz, bitarteko ezberdinekin jolas egiteak aukera handiak ematen dizkit. Interesgarria iruditzen zait. Ikasketak egiten ari nintzela, herri batetik bestera ibili nintzen, eta hainbat diziplina landu ahal izan nituen. Asmatuta dago dena, gauza berrri asko sortu dira, abangoardien garai potentean batez ere, non sortu eta birsortu egin baitzuten, eta gaur egun, berriz, asmatutakoekin jolas egitea dagokigu. Eta, hala ere, gauza berriak etengabe sortzeko lanean beti.

31 urte dituzu, curriculum oparoa osatua duzu, bateko erakusketa, besteko instalazio eta sorgune... Noiz arte iraun dezakezu erritmo ero horretan?

Ez da galdera erantzuten erraza! Lan eta lan eman dut joan den urtea, aste-

buruetan ere lanean. Nekagarria izan zen. Lan zamak kostu pertsonala dakar. Urte amaieran atsedenaldirik txiki bat hartu nuen, ondoren berriz gogoz hasteko. Baina... leher eginda nago.

Zure artibismoaren barruan, rangolia margotu zenuen Gasteizen, Krea Adierazpen Garaikidea eraikinarekin atarian. Rangolia zer den ez nekezun. Hiztegia kontsultatu behar izan dut.

“

Lehiaketa publiko bidez esleitutako arte proiektua 'El Correo' eta Vocento erabiliz gelditu nahi izatea erabat desegokia da

Mandala bat. Indian "rangoli"-a esaten diote. Atzerrian eman nituen zortzi urte, ikasketak egiten, masterra eta beste. Gasteiza itzuli eta nire lanak erakusteko aukerarik ez nuen, oso aukera mugatuak ziren.

Krea, berriz, arte munduari eragiteko sortua zen, proiektu ederra iruditu zitzaidan. Haatik, itxita zegoen! Ausardiaz bete eta rangolia margotu nuen. Azken finean, Indian oparotasun esanahia du rangoliak. Inoren etxe atarian margotzen duzularik, oparotasuna opa diezu etxe hartakoei. Berdin egin nuen nik Krea: hesia igaro eta lurrean rangolia margotu. Oparotasuna opa nion sorguneari.



EUSKARAZ

“Kanpoan eman nituen zortzi urteetan euskara galtzera iritsi nintzen. Ez nintzen hitz egiteko gauza. Bel-durra ematen zidan. Itzuli nintze-nean, berreskuratzeari ekin nion, eta lortu dut. Euskarazko lanak sortzeko gai naiz orain. Euskara gure kultura errebindikatzeko modua dela iruditzen zait”.

Azken hitza: ARTEA EZINBESTEKO

“Diruak eta botereak agintzen duten garaian, kontsumoa zorion osagaia den honetan, artea eta kultura beste esparru batzuen atzean geratu diren honetan, zentzuari deiaraz egin nahi diot. Artea ezinbestekoa da gure bizitzan: sortzaile izatera, aukera ezberdinak bilatzera eta arazo eta dilemak askatzera bultzatzen gaitu; pentsatzera, ikertzeraz, kezkek planteatzera eta, aldi berean, hauek askatzera”. (‘6000zpt’ instalazio artistikoaren aurkezpenetik hartua).

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Kutxabankek, eraikinaren jabe baita, ez zuen zure oparotasunik onartu.

Ez. Udaltzainak etorraz zituen. Gu hartu eta bota egin gintuzten handik. Gaitz erdi, *rangolia* margotuta zegoen gu botatzera etorri zirenerako. Goizeko zazpitan hasita geunden margoketan, eta eguerdi arte ez ziren iritsi. Oso *rangolia* polita egin genuen. Bestalde, interbentzioa esanahiz betea zen, pigmentu naturalez baliatu baikinen. Ez alferrik, elurrak desegin zuen. Ondoren, salaketa jaso nuen, baina SOSKrea plataforma osatu genuen hirian, eta azkenean, salaketa kendu zuten. Hortxe historia. Harrezkero, izan da mugimendurik, polemikarik, eta ematen duenez, toki publiko egingo dute Krea. Eta poztan naiz, jendearentzat behar baitu leku hark.

6000zpt instalazioak ere salaketa zuen helburu. Garai hartan (2015) Gasteizko alkate Marotoren politika "arrazista" eta "baztertzailea" salatu zenuen, artea bitarte.

Niretzat, artea da bitarteko bat, barruan daukadana, hitzetan nekez azaldu ahal dudana, pentsatzen dudana, erakusteko. 6000zpt egin genuenean, berriz, hortxe ari zen Gora Gasteiz! mugimendua, orduko udal agintariak ezarri nahi zituzten politika askoren kontra. Mugimendu dinamiko eta koloretsu harekin bat egin da, oinetakoekin zer edo zer egitea bururatu zitzaidan. Azken finean, egunero janzten ditugu oinetakoak, gure isla ere badira. Hilabetea eman genuen oinetako biltzen, eta azkenean, instalazioa muntatu genuen. Ederra. Dena dela, muntatze hura ez zetorren bat nik gogoan neukan helburuarekin, zeren eta nik jen-

deak oinetako haiek hartu eta formak osatzea, jolas egitea nuen asmoa. Dena dela, pobrezia hiriaren erdialdera, Gasteizko plazarik enblematikoenera, ekartzeko balio izan zuen. Dirua dutenek kafea hartzen zuten bitartean, behartsuek zapatak probatzen eman zuten denbora. Irudi indartsua izan zen.

Zer ematen dizute sariek?

Arte mundua oso zaila da. Oso gara auto-kritikoak, gure lanak erakusteko beldurrez, zalantzan bizi gara... Sari bat jasotzea aitor-tza da, eta horrekin batera, zure lanean aurrera jarraitzeko konfiantza dosia. Hainbat sariketa eta lehiaketatara aurkeztuta ere, ez dugu saririk jasotzen, ezta finalista gelditzen ere. Noizean behin, berriz, sariren bat jasotzen dugu, eta aurrera jarraitzeko gogoia ematen digu.

Zein momentutan zauden galdetu dizut elkarrizketaren hasieran. Eta, geroan, zein bide egin nahiko zenuke? Atzerrian erakutsi nahiko nituzke nire lanak. Garapen bat ikusten dut nire artean, badakit ez naizela helmugara iritsi, eta jolasean jarraitu nahiko nuke artelan berriak egiten.

Berriak egiten dituzu dagoeneko!

Berriagoak, orduan! Kar, kar... Jendea ar-tezaletzea ere nahiko nuke. Irudien munduan bizi gara, baina kontsumoaren eta publizitatearen menpe dago, gehienbat, arte hori. Gainerakoan, ez dut artea gure egunerokotasunaren barruan ikusten, eta nik artea jendearen eskura egotea nahiko nuke, denontzakoa izatea. Zenbait garaitan eliteentzat beste inorentzat ez da izan, eta hori apur-tu behar dugu. ●



Iritziak

Venezuelaren ehiza



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA
@AxiBM

1 999an Hugo Chavez boterera iritsi zenetik ezkerreko gobernu soberanistaren kontrako gerra amaigabea egon da martxan, intentsitate desberdinekin unean uneko botere korrelazioaren arabera. Arazoa ez da 2018ko hauteskunde presidentziala, arazoa chavismoaren proiektu burujabea da. Horregatik, AEBek eta Venezuelako burgesia handiek ez dituzte onartu chavismoak irabazi dituen hauteskunde desberdinak.

2002an oposizioak eta AEBak estatu kolpe bat ematen saiatu ziren. Nazioarteko botere oreka aldekoa zuten, ez ordea herria eta ejertzitza. Orduetik geopolitika asko aldatu zen ezkerreko gobernuen ugaltzearekin Latinoamerikan eta bigarren mailako nazioarteko potentzien indartzearekin. 2002tik 2009ra garai onak izan ziren soberanistentzat. Baina, AEBek nazioartean izandako porroten ondorioz, Obamak berriro Latinoamerikari begiratu zion.

Hondurasko estatu kolpe gogorrak (2009) markatu zuen aldaketa, ondoren herrialde aurrerakoen kontrako desestabilizazio eta kolpe biguinen kanpainak etorri ziren. 2014an petrolioaren prezioa hondoratu egin zen, beste faktore batzuen artean, AEBen eta Saudi Arabiaren arteko akordioak bultzatuta etsai geopolitikoak kaltetzeko. Horrela, 2014 eta 2015 artean berrindartu zen Venezuelaren aurkako gerra hibridoa: sabotaje ekonomikoaren estrategia berpiztu eta oposizioak biolentzia barreiatu zuen *guarimbero*-en

Kanpo interesen zerbitzura
presidente kargua usurpatu
duen Guaidó kalean dabil,
Puigdemont erbestean eta
Junqueras preso. Zorionez,
Txina eta Errusia daude.
Venezuela ez badago
inbaditua oraindik, batez
ere, Errusiari esker da

bitartez, artean Obabamak lehenengo santzio ekonomikoak jarri zituen. Testuinguru horretan, oposizioak Asanblada Nazionalerako hauteskundeak irabazi zituen. Hiru diputatu ustelen izendapena Auzitegi Gorenaren erabakiaren aurka egin zen eta orduetik, desakatoan egon da parlamentua Venezuelako estatua erasotzen.

Guarimbero-en bigarren erasoa 2017an izan zen. Bortizkeria hainbeste-koa izan zen, ezen eta oposizioak erabat zatitua bukatu baitzuen eta horrek eragina izan zuen gobernuaren eta oposizioaren arteko negoziaketan. Adostasuna hauteskunde presidentzialen aurrerapean zegoen, baina oposizioak lider integratzaile bat falta zuen lehitzeko. AEBek hor hartu zuten erabakia hauteskundeak boikoteatu eta bere estrategia kolpista propioa martxan jartzeko Venezuelako

oposizioarekin adostu gabe. Ondoren Maduroren aurkako atentatu saiakera egon zen eta AEBetako *Associated Press*-k azaldu bezala Washingtonek estatu kolpea prestatzen jarraitu zuen.

Libia, Ukraina, Siria, Brasil, Nikaragua... Helburua guztietan berdina da, herrialdeak Mendebaldearen esanetara jartzea, nahiz eta askok ez duten ustezko posizio aurrerakoietatik hori ikusi nahi. Lotsa gutxi behar da azken urteetan jasan dugun zirko mediatikoa espiritu kritikorik gabe irensteko. Milioika ordu eta tona paper argitaratu dira agintari subiranisten demonizazio amaigabeak burutzeko edota ustezko kanpo (errusiar) injerentziari buruz hitz egiteko. Berriz, benetako kanpo injerentzia datorrenean, egileak esplikatzeko dizunean lotsagabe, orduan demokrazia eta giza eskubideez hitz egiten da *fake news* jaialdi bat antolatuz. Bitartean, kanpo interesen zerbitzura presidente kargua usurpatu duen Guaidó kalean dabil, Puigdemont erbestean eta Junqueras preso. Zorionez, Txina eta Errusia daude. Luismi Uharte EHuko irakasleak azaldu duen bezala, Venezuela ez badago inbaditua oraindik, batez ere, Errusiari esker da. Baina zaudete lasai, oraindik ustezko aurrerakoi *neocon*-en negarrak entzungo ditugu multipolaritateak sortzen duen nazioarteko harremanen kudeaketa demokratikoagoaren aurka hitz eginez, izan ere, bihotzean mendebaldar supremazismoa tatuatua daramate eta. ●

Autoerregulazioa, autogobernua, autodeterminazioa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA
@aneelixabete



ANTTON OLARIAGA

Autorregulazioa eta direktibismoa, haurtzaroa zaintzeko eta heziketa ulertzeko existitzen diren bi paradigma nagusiak dira. Heziketari loturik ezagutzen ditugu batez ere bi kontzeptuak, baina bizitzeko modu gisa ere uler litezke, heziketa ez baita haurrak egoki heitzeko hautatzen dugun teknika bat, hurrekin erlazionatzeko helduok dugun harremana baizik. Nik bizitzearen sinonimo gisa irudikatzen dut heziketa, bizitzeko gure moduak inguruko haurrengan duen efektuaren zentzuan. Hori baino ez, baina hori guzia ere bai.

Erlazioan hazten eta bizi garen espeziea garelako, oso beharrezkoa dugu erlazio horren nolakotasunari buruz gogoeta egitea, aldagai erabakigarriena delako gure izatearen konfigurazioan, eta eragin zuzena duelako bizimoduaren kalitatean. Haurtzaroan, heldu batzuekiko harreman estuan garatzen gara. Eta helduaroan ere, pertsonen arteko harreman-sarean gertatzen zaizkigu bizitzaren gazi-gozo gehienak.

Harreman baten zilegitasuna eta kalitatea kualitate bakar batek du erabakitzen: partaide diren horien askatasuna errespetatua izateak. Bakoitza libre izan dadila den bezalakoa izateko, bere errealitate-esparrua libreki kudea-

tzeko, bere jabetza-pekoea baino ez den territorio libre horretan jaun/andere bakar izateko. Printzipio horien araberrako harremanak ez dira ohikoak, pertsona burujabeez osaturik egotearen baldintza dutelako, eta jende libre ez delako ohikoa. Libre izateko, hurbiletik babestu beharra dago askatasunaren eremu sakratua, eta geure baitarako konexio estua zorrozki mantendu. Izan ere, geure izatearen kontrako eraso bat identifikatuko badugu, nor eta nolakoak garen jakin behar dugu, gure modelazioa helburu duen manipulazioa, edo gure gainetik kokatu nahi duen gidari zapaltzailearen zantzurik txikiena ere antzemateko.

Norbaitek eraso egin izanaren kontzientzia edukitzea da lehen pausoa. Eta defenditzeko bezainbeste indar biltzea, bigarrena. Sano dauden organismoek oso aktibo dute defentsa-mekanismo hori. Bizirik daudelako eta bizirik dauden bitartean, hil ala bizikoa zaielako. Haur txikiek esaterako, duintasun handia erakusten dute eskubidez dagokiena defendatzerakoan. Baina itzali egiten zaie gero indar berezko hori, haurren borondatea doblegatzea helburu duten ekosistema oso direktiboetan, batez ere. Amore ematen dute,

oinarrizko eskubideak errespetaraztea ezinezkoa zaiela sentitzen dutelako, eskura duten indar guzia baliaturik ere. Erabaki horretantxe dauka jatorria etsipen karakterialak. Norbere indarraren gaineko konfiantza galdurik, bizitzaren gidaritza menderatzailearen esku uzten duenekoan, alegia.

Hortik aurrera, menderatzailearengan jarriko du arreta osoa. Bere gainean duen boterea aitortuta, askapenerako giltza hark duela onartu duelako, eta egoera horretan beregan eragitea beste estrategiarik ez duela irudituko zaio-lako. Horrela, bat: edo esaneko bilakatu da, haren gustua eginez errukia lortuko duelako esperantzan. Edo, bi: egiten zaizkion bidegabekerien kontra erreakzionatuko du, baina oharitu gabe erreakzio hutsean ari dela, eta ez diola menderatzailearen txotxongilo izateari uzten, probokazioen bitartez ere markatzen ahal delako menderatu nahi dugun horren bizitza-politika. Autogobernurako gai izateari uzten diote, edo herri menderatuen kasuan gauza bera dena, autodeterminazioa gauzatzeari. Hurbiletik ezagutzen dut horietako bat, askatasuna nahi edo behar duen galdera egitera ere iritsi da. Eta baimena eskatzera. Pentsa. ●

Zer ospatu handirik ez



ENEKO OLASAGASTI
EAB-KO ANTOLAKUNTZA
IDAZKARIA

Azken hilabeteen hainbat agerka-ri digital eta paperezkotan hona-ko lerro-burua irakurri ahal izan dugu: Onartua Artistaren Estatutua. Eta hitzezko ospakizunak zetozen atzetik. Baina ez da egia. Eta ez dakit oso ongi zer pentsatu, zer dagoen gezur horren atzean. Edo ezjakintasunaz idatzi dute edo asmo txarrez. Artistaren Estatutua Espainiako Diputatuen Kongresuko azpi batzorde batek idatzitako aholku txosten bat baizik ez baita. Gobernuari dagokio horko edukiak lege bihurtzea. Eta oraingoz joan den abenduaren 18ko 26/2018 Errege Dekretua besterik ez da onartu. Dekretu horretan Gizarte Segurantzarekin zerikusia duten zati batzuk besterik ez dira arautu. Besteak beste, erretiroa hartu eta gero lan egiteko aukera izatea, beharreko deskontuak eginez baina ez gehiago, eta egile eskubideak kobratu ahal izatea. Baina Artistaren Estatutua askoz gehiago da. Gizarte Segurantzarekin lotura duten beste alor batzuk arautu beharko lituzke, Ogasunarekin artistek duten harremanak arautuko lituzkeen epeen gaineko eredu berri bat sortu eta Askatasun Sindikala bermatu, nagusiki. Eta hortaz oraindik ezer ez da egin.

Gainera, Errege Dekretuak arautzen duena aurretik epaitegietan lortuta zegoen. Hain zuzen ere, Euskal Aktoreen

Batasuneko abokatuak epaitegi askotatik pasa eta gero Auzitegi Gorenean irabazitako auzia da, jubilatutako eta gero lan egiteagatik Gipuzkoako Gizarte Segurantzak aktore batzuei egin zizkien gehiegizko atxikipenak zirela kausa. Epai horrek jurisprudentzia ezarri zuenez Errege Dekretuak ez du ezer berririk ekarri beraz. Kurioso da, beste zerbaite ez esateagatik, jokabide hori Gipuzkoako Gizarte Segurantzak besterik ez zuela izan. Ez Bizkaian, ez Araban, ez beste inon ez zuen horrela jokatzeko. Gerora Balear Uharteetan errepikatu nahi izan da. Baina alferrik, jurisprudentzia baitzegoen.

Zertara dator orduan hainbesteko zalaparta eta ospakizuna? Erdiaren erdiaren erdia ere ez denean arautu. Ez dut pentsatu nahi horrekin idazle ospetsu batzuek osatzen duten lobbya kontentutuzteko izan denik. Oso ondo ordaindutako hitzaldiak ematen segi dezaten. Ez dut pentsatu nahi propio egindako zerbaite izan denik, denok uste dezagun Estatutua bere osotasunean onartua izan dela eta hortik aurrera kito. Ez, ez dezagun gaizki pentsatu.

Bestetik, eta bukatzeko, hainbat aloretan erkidegotan ez dugu eskumenik baina EAEn baditugu ogasun kontuetan. Zeren zain daude Aldundiak eta Jaurlaritzak lanean hasteko? ●

Eskatologiaren argitan



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Amari zor diot pasartea. Gaztelaniaz. Gasteiz erdialdeko familia batean gertatua omen zen; zehazkiago, ama baten eta alaba baten artean. Kontua da, halako batean, ama hura etxeko komun batean sartu zela eta bertako tapa altxatzean kaka arrasto nabarmena aurkitu zuela. Hogeitaka urteko alaba sartua omen zen komunean minutu batzuk lehenago eta, beraz, harena omen zen obra. Nolatan ez zuen garbitu galdetu zion amak alabari, eta gazteak erantzun omen zuen ea zertarako kontratatua zuten garbitzaile bat etxean. Zuplateko ederra eman omen zion amak

orduan, bai eta haxe esan ere: “Sekula ez dun inork hire kaka garbitzeko adina dirurik irabaziko”.

Tonu hezigarrian kontatzen du amak pasarte eskatologikoa. Eta, literaturarekin gertatzen den bezala, ez du aparteko muntarik kontatutakoa egiazki egia den ala ez: hagitz ongi funtzionatzen du istorioak.

Hamarkada pasatxo daramat lanean EHUn. Pentsatzekoa denez, maiz aski eraman izan nau fisiologiak komunera lanorduetan. Etxeko pedagogia ez da, nonbait ere, unibertsitate publiko honetara lerratatu. ●

Madriilen



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Euskal Herrian emakumearen berdintasunaren alde bertze leku batzuetan baino urrats bat aitzinago gabiltzala behin berriz bistaratu zen urtarilaren 30ean, San Mamesen. Gau zinez zakur batean, *Katedral*-eko harmailetan 48.000 lagun metatu ziren neskek osaturiko bi futbol talderen arteko demaren lekuko izateko. Inoiz ikusi gabea, Europa osoan eta kasik munduan. Euskal futbolzaleek goi-goian paratu zituzten bai kirol femeninoa bai herri honen izena. Madrilgo prentsa gehienaren miresmena. Nahiz eta, tira, hain zaila ez zuten, San Mamesko balentriaren oihartzuna *New York Times*-en edo *Washington Post*-en orrietara ere ailegatuta.

Kezkatzekorik ez zegoen.

Harrigarriagoa egin zitzaidan Iban Zalduarena. Madrildik itzuli berria zen, *Como si todo hubiera pasado* liburua aurkeztetik, bere narrazioekin erdaraz atera duen bilduma. Txundituta, aurkezpen ekitaldira etorritako jendetzaz eta bere lanak piztutako jakin minaz. Hainbertzeraino, trankildu behar izan bainuen

Etsi beharko dugu.
Errealitateari aurre egin.
Den latzena izanik ere.
Madrilen modan gaude.
Maite gaituzte. Eta ez
dakit prestaturik gauden
hainbertze maitasunerako

neure burua: “Ezagun duk alu honek nondik egiten duen herren. Ederki egin ziotek lan hiri puta horretan dituen laguntxoek!”.

Madrid Fusión izeneko azokan Eneko Atxari Urteko Sukaldariaren saria emateak alarma piztu behar zidan, azkenik, baina ez zidan piztu. Berunezko urteetan ere Estatuko hiriburuan alfonbra gorria hedatzen zieten gure sukaldari sonatuenei, baita haiek eroso eta esker

oneko ibili ere hango telebista, saloi eta zeta-bestetara gonbidatzen zituztenean ere. Lehengo lepotik burua, hortaz, *Azurmendi* etxeko jaunak hartutako golardoa.

Kontua da, saltsa-nahasle zornotzarra saritzen ari ziren une berean Maialen Lujanbio –gure Maialen– ari zela Erresumako hiriburuko bertze toki batean, kantari. Euskal Herriko txapelduna –bitan txapelduna– Madrilgo Cinetecan, bertsotan, Radio 3ko *El séptimo vicio* programak antolatutako saioan. Jendetza polita, nonbait, hernaniarra baino lehen Asier Altunaren *Bertsolari* dokumentala ikusteko aukera izan zuena. Entzule horiek berak gai-jartzaile jarri omen zituen Lujanbiok, baita botatako bertsoen mamia azaldu ere. Irrati espainiarraren arabera, arrakasta totala.

Ileak lastu zitzaizkidan. Lehenbizikoa kasualitatea izan zitekeen. Bigarrena, zoriaren xelebrekeria. Hirugarrena, konjuntzio astrala. Laugarrena...?

Etsi beharko dugu. Errealitateari aurre egin. Den latzena izanik ere. Madriilen modan gaude. Maite gaituzte. Eta ez dakit prestaturik gauden hainbertze maitasunerako. ●



Eman izena!

Lehiaketan parte hartzeko
epea **otsailaren 24a**
arte egongo da zabalik

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekoa
ARGIA kolaboratzeko aukera



KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus

Amul been nit ku leegalul

Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

inor
ez
da
ilegala

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

15€
Bidalketa gastuak
4€



BIZKAIKO EGOITZETAKO GREBA, 2016-2017

ZERGATIK IZAN ZEN HURA BORROKA FEMINISTA

2016ko martxoan hasi zen. Ia bi urtez luzatuko zen borroka, 378 egun greban. Bizkaiko zaharren egoitzetako langileak kokoteraino zeuden. Ia langile guztiak emakumeak ziren, zaintza lanak egiten dituzten gerokultoreak, lan baldintza kaskarretan. Ustekaberik ez, zaintza beti bezala emakumeen ardurapean, ordainik gabe edo gaizki ordainduta. Bosgarren hitzarmena sinatzea garaipena izan zen, baina borroka hark lan baldintzak hobetzea baino dezentez gehiago lortu zuen: emakumeak ahaldundu ziren, zaintza erdigunean jarri zuten, gizartea sentsibilizatzea lortu zuten, eta beste sektore feminizatu prekarioentzat eredu eta hauspo izaten ari da. ELA sindikatuaren Manu Robles-Arangiz Institutuak eta ARGIAk elkarlanean, *Berdea da more berria* liburua argitaratu dugu, borroka haren giltzarriak grebalarien ahotik kontatuz.

TESTUA | ONINTZA IRURETA AZKUNE

ARGAZKIAK | ELA-REN ARTXIBOA

ERRETRATUAK | DANI BLANCO

Sektoreko patronalari oilo ipurdia jarri zitzaion ELAko ordezkari sindikalek bosgarren hitzarmenerako eskatu zituzten hobekuntzak entzundakoan. Baina sinatu zituzten: urtean 140 euroko igoe-
ra soldatan; urtean 106 lanordu gutxiago 1.592 ordura iritsi arte; 20 minutuko atsedena; bajak ehuneko ehun kobratu; igandetako eta gaueko plusaren igoea. Ugazabak ez zeuden ohituta emakumeek gizonen pareko lan baldintzak eskatu eta lortzera.

Su geldian landutako garaipena izan zen, eta lan baldintzez harago, grebak urte luzez sindikatuak landutako hainbat lorpen eta indargune lehen lerrora ekarri zituen. Motz geratzea litzateke esatea lan gatazka hutsa izan zela borroka hura. Emakume grebalari askoren sentsazioa izan da adar asko izan dituela greba luzeak. Hasteko, 2016a baino dezentez

lehenago ELA Bizkaian egituratzen hasi zen sektorean, ehunka emakumek sare indartsua osatzea lortu zuten. 2016ko udaberrian, feminismoan eta lan gatazketan zaildutako langileak zein eskarmentu gutxi eta protestarako beldur handia zuten beharginak elkartu ziren. Ahalduntze prozesu indibidual eta kolektibo indartsuak bideratzea lortu zuten. Sektorearen hamarkadetako ibilbidean inoiz ez bezala, ordezkari sindikal multzo batek protagonismo erabatekoa hartu zuen, ia denak emakumeak ziren. Negoziazio mahaietan emakumeak nagusi ziren, patronal ia guztiz maskulinoaren aurrean. Maiz sutu ziren emakumeok, aurpegiratu zietenean sindikatuaren txotxongilo zirela.

Elkarren artean antolatzen ikasi zuten eta inoiz baino garbiago izan zuten jomuga: ugazaben pentsaera matxistaren le-







kuko izan ziren negoziazio mahaletan eta erakunde publikoek aspalditik abian zuten pribatizazio politikaren ondorioak ulertu eta jasan zituzten.

Hedabideetan eta kalean indar erakustaldia egin zuten, batez ere Bizkaian. Gaia oso hauskorra zen, epe luzeko greban pertsona zaurgarriak, zaharrak eta arazo psikiatrikoak zituztenak, zaintza egokirik gabe geratuko ziren. Urte askotan egindako lanuzteetan oso ohikoa zuten 'krudelak' eta 'kriminalak' zirela entzutea: zaharrak abandonatzea egozten zieten langileei. Tortillari bira ematea lortu zuten, ordea, azken greban. Sozializazio eta sentsibilizazio kanpainen bidez mezua gizartean sartzea lortu zuten: egoiliarrek ez daude ondo zainduta langileek lan baldintza duinak ez badituzte. Zaintza lanak balioan jartzeko garaia zen. Langileek zuzenean lotu zituzten haien egoera laborala eta egoiliarren bizi kalitatea. Grebalariek sarritan salatu zuten pertsonak makinak moduan tratatzea behartzen zituztela. Hala esan zion ordezkari sindikal batek zuzendariori: "Zaharrak kroketak moduan dira, arrautza-irinetan pasatzen ditugu: ri-ra, ri-ra, hurrengoa!". Sektorearen historian lehen aldiz egoiliarren senideek elkarteak sortu zuten grebalariek babesteko.

BIDE-ERAKUSLE IZANGO OTE DA 2016KO GREBA?

Lehen lerroan aritu ziren ordezkari sindikalek ELAren babesa aipatu dute. Giza baliabideak, egitura juridiko sendoa,

eskarmentua, eta erresistentzia kutxa. Greba luzea izan zen, besteak beste, sektore feminizatua zelako, emakumeen borroka izan zelako. Bada, gero eta gatazka gehiagok dute emakume aurpegia. Patronalek aintzakotzat hartzeko imintziarik ez badute egiten, gatazkek gogorrak eta luzeak izateko aukera asko dituzte. Nola euts dakieke, eta batik bat, nola irabaz daitezke halako demak egitura sindikal indartsu bat izan ezean?

Langile grebari greba feminista ere deitu zaio. Nola eragingo dio aurrerantzean borroka mota honek gatazka gidatu duen ELA sindikatuari? Sindikalismoak eredu maskulinoa izan du eta hala izaten jarraitzen du. Borroka honetan, eredu hori pitzatzeko pausoak ikus daitezke. Greba hau eta gero, sindikatuak bere buruari klase-sindikatu feminista deitu dio. Azkenaldian kudeatzen ari den gatazka askotan emakumeak ari dira borrokan, eta ELA nola gero eta emakume gehiago ari dira izena ematen. Jada afiliatuen %45 emakumeak dira. Baina ELA-tik harago, nola eragingo ote du 378 egun iraun dituen borroka feminista honek, orokorrean, sindikalismoan? Eta lan-harremanak ulertzeko moduan? Zaintzari gizarteak ematen dion balioan?

Berdea da more berria. Bizkaiko egoitzetako grebalarien testigantzak liburuan greba bere dimentsio zabalean ulertzeko pistak eman ditugu, emakume borrokalarien eskutik. Ondoko lerroetan, grebalariek liburuan kontatu dituztenen pasarte batzuk dituzue. ●



BERDEA DA MORE BERRIA

BIZKAIKO EGOITZETAKO
GREBALARIEN TESTIGANTZAK
Onintza Irureta Azkune

ARGIA LIBURUAK, 2019

Hitzaurrea: Irantzu Varela Urrestizala
144 ORRIALDE

Liburuko protagonistak emakume grebalariek dira. Zortzi borrokalari elkarrizketatu ditugu: Maribel Sampederro Martínez, Ainhoa Menéndez Llamosas, Marina Costa Bonome, Verónica Aguado Otero, Lara Góngora Góngora, Marisol Rueda Espinha eta Aitziber Tolosa Contreras. Haien ahotik kontatzen da 2016ko greba handia. Halako indar erakustaldia ez da, ordea, hutsetik sortu. Liburuaren lehen zatian, 1980ko urteetara egin dugu atzera. ELA sindikatuak sektorean egindako apustuaren giltzarriak azaldu ditugu eta egoitzetako emakume zaintzaileen hazte prozesua kontatu.

LIBURU AURKEZPENAK

OTSAILAK 20, BILBO • 19:00

Bira Kultur Gunea

MARTXOAK 7, BAIONA • 20:30

Manu Robles-Arangiz
Fundazioaren egoitzan

AINHOA MENÉNDEZ LLAMOSASELAko ordezkari sindikala
eta grebalaria**INOIZ
KONTATU
GABEA**

"Kontatuko dizut 21 urteko mutil lan-kide batekin izan nuen elkarrizketa. Bere aitak eraikuntza enpresa dauka eta eskulangile aritu da. Gihartsua da. Nik hari: 'Zertan egiten zenuen lan?', eta berak: 'Obran. Nire lagunek barre egiten didate, zeren esaten diet lan honetatik ateratzen naizenean nekatuago nagoela nire zaharrenekin lana egiten nuenean baino. Ez didate sinesen. Eta esaten didate: 'Ipurdiak garbitzen ari zara eta!'. Izorratuta ateratzen naiz, batzuetan fisioterapeutarengana joan behar izaten dut-eta!'. Eta nik esan nion: 'Badakizu, segi kontatzen hau dena zure lagun matxiruloei'.

Beste mutil batek 26 urte ditu eta kirolaria da. Hark ere esaten du lehertuta ateratzen dela eta fisioterapeutarengana joaten dela. Lan hau beti egin dugu emakumeok, sarri kobratu gabe. Inoiz kontatu ez den historia hau orain ari gara zabaltzen. Patronalen gutxiespenak ere kontatu ditugu: Zergatik nahi duzue soldata hainbeste igotzea neskak? Zergatik aldarrikatzen dituzue hainbeste lizentzia? Ezin zara medikuarengana joan lan eguna txandatuta? Umea medikuarengana zergatik ez dute eramaten zure gurasoek?"

MARIBEL SAMPEDRO MARTÍNEZELAko ordezkari sindikala eta
grebalaria**NEGOZIAZIO
MAHAIAN
MESPRETUKA**

"Agian egin dugun greba motagatik gehiago kosta zaigu, eta jakina, emakumeoi ez zaigulako hainbeste kasurik egiten. Greban eta negoziazio mahaian. Guri esan zaizkigunak gizon bati esango balizkiote, gizon horrek altxa eta muturrekoa eman-go lioke. Mahai batzuetan egon naiz eta emateko gogoz geratu naiz. Lerde-kontuak entzutea egokitu zait. Beste horretan ez nintzen egon. [Libururako elkarriketatu ditugun ia emakume guztiek kontatu diguten gertaeraz ari da Sampedro. Negoziatio mahaian patronaleko batek bere barrabilei eusteko keinua egin zuen eta haxe esan: "Hemendik aterako dira zuen hobekuntzak!"]. Adibide hori gogoratze hutsa... Gorputzean halako ezina eta amorrua ari zait eragiten! Uste dute gure soldata osagarria dela etxean. Gu ez goaz mahaira gure bizitza pribatuaz hitz egitera, zuk ez dakizu norbait dudan ondoan ni mantentzeko edo nire burua mantentzen dudan. Mahaian hitzarmenaz hitz egiten dugu eta akordio batera heltzeko biltzen gara. Pertsonatik pertsonara hitz egin behar dugu, ez emakume eta ez gizon. Baina haiek emakumeari hitz egiten diote, soldata osagarria duen emakumeari. Gizon haren keinuak oso umore txarrean jarri ninduen".

MARINA COSTA BONOMEELAko ordezkari sindikala eta
grebalaria**LANGILE
GOGAIKARRIA**

"Emakume asko berandu hasi ginen lanean eta gutxi kotizatu dugu. Orain prekarioak gara eta gero ere hala izango gara. Seme-alaben limosnetatik bizi beharko dugu. 59 urte ditut, diren eta ez diren grebak egin ditut, eta hemezortzi urte lanean. 400 bat euro izango ditut jubilatzen naizenean?

Erretiroa alde batera utzita, orain langabezian geratuko banintz ez nuke inoiz lanik aurkituko. Grebako aurpegi ezagunetako bat izan naiz. Patronal osoak ezagutzen nau, diputatuak berak ere bai. Badakite ez naizela geldirik eta isilik egongo. Nire seme-alabek ez dute nirekin lotu ditzaten nahi, sare sozialetan adibidez, beldurra dute. Lana aurkitzeko arazoak izateak ez dit gehiegi axola, berriz esango dizut, horren guztia gure gainetik dago nire duintasuna, emakume eta langilearen duintasuna. Inork ez nau behartu horrela jokatzera. Gizarte eredia aldatu behar da eta ezin gara egon zer gertatzen den begira, gure aletxoa ipini behar dugu. Egoitzan gure aldarrikapenekin jarraituko dut, sarean Espainiako beste emakumeekin ere bai, jubilatuen manifestazioetan parte hartzen dut... Nire arazoa konpondu eta kito, horrek ez du balio".

MARISOL RUEDA ESPINHA

Greba ondoren
kaleratu zuten

**AITZIBER TOLOSA CONTRERAS**

Ordezkarri sindikala
eta grebalaria

**KONTXI RODRIGUEZ PALACIOS**

Ordezkarri sindikala
eta grebalaria



NORBERE BURUAZ HARRO

"Iratzarri naiz, indartsuagoa naiz greba eta gero. Ez nuen uste heldu naizen tokira iristeko gauza izango nintzenik. Gure egoitzara joan taldean pegatinak jartzera eta nik esaten nien erdi serio-erdi txantxetan: nik ez ditut pegatinak jarri nahi kristaletan, sorgina [zuzendaria] ateratzen bada zer? Errekalde auzoko egoitzakoak-eta etortzen ziren gurera laguntzera eta esaten zidaten: 'Aupa Marisol, zu gai zara!'. Beldurra nuen, nire buruari esaten nion: 'Zertan ari naiz? Lanpostua jokoan jarri dut!'. Nire buruari esaten nion hori, inori ez nion kontatzuten. Beldurra galtzen hasi nintzen. Zenbat jende elkartzen ginen, zenbat jende hasi nintzen ezagutzen... Greba egun guztiak egiten hasi nintzen eta ekintzetan parte hartzen. Beldurrik ez duen pertsona bihurtu naiz, harro dagoena egin duenaz, eta beste greba bat balego egingo nuke berriz. Ni hazi egin naiz, ez dakit nola adierazi: zakur kakaren pare nintzen lehen. Ekintzetara joan eta harro sentitzen nintzen, bukatzen zen eta esaten nuen, 'orain zergatik noa etxera?'. Greba oso ondo etorri zait, burua ireki dit gauza askotarako, jende asko ezagutu dut, arazo asko dauzkan jendea ezagutu dut, elkar lagundu dugu, izugarria izan da".

BEGIRUNEA ORDEZKARI SINDIKALARI

"Ordezkarri sindikal izanda asko ikasten duzu. Hasieran ez dakizu hitzarmen bat zer den ere. Ikasi ahala zuzendariarengana zoaz eta esaten diozu, 'kontuz! Nik ere badakit zertaz hitz egiten ari naizen'. Adibidez, egun libreei dagokienez, garai batean telefonoz deituko zizun arduradunak eta esango zizun: 'Gaur 23:00etan etorri lanera', eta joan egingo zinen. Orain esango diozu: 'Ez noa, nire egun libre da'. Ama gaixo zegoen eta ospitalera joateko premia izan nuen eta esango zizuten: 'Ez daukazu hainbeste egun libre hartzerik!'. Haiek saiatzen dira ahalik eta egun gehien kentzen. Zuri dagokizu esatea: 'Zelan ez? Hitzarmenak horrela jartzen du'. Beste adibide bat: medikuarengana beti egun libreetan joan behar. Baina beti ez dizu egun libreetan ematen txanda. Ordezkarri sindikala izanda, asko ikasten duzu, eta haiek begirune handiagoa dizute. Adibidez, haurra izateko *in vitro* ernalketa prozesua egin nuen eta egun asko behar nituen. Zuzendaritzan esaten nien, 'halako egunetan ez nator', eta 'ados' erantzuten zidaten. Ordurako ordezkarri sindikala nintzen, ez dute arazorik nahi gurekin".

ETXEKOANDREAK BORROKALARI

"Indar handiz bizi izan dut greba hau. Taldean lotura oso estua eraiki da, emakumeen artean batik bat, zeren sektore feminizatua da, baina gizonak ere izan ditugu alboan. Nik feminismoa bizi dut, genero ikuspegia dut, baina adin bateko emakumeek, bestelako bizipenak izan dituztenek, bestela jokatzeko zuten: manifestaziora joateko etxean otordua prest utzi behar zutela zeukaten buruan, protestara joan aurretik senar eta seme-alabentzat dena prest utzi behar zuten. Etxekoandre tipikoak ziren, etxetik kanpo lana egiten dutenak, baina etxeakoandreak. Eguna joan eta eguna etorri manifestazioak, kanpaldiak, ibilaldiak, elkarretaratzeak... egin ditugu. Badakizu zer ikasi duten emakume horiek? Pertsona izaten; eta ez zaintzaile, ez alaba, ez ama, ez emazte, emakume baizik. Egin behar zutenaz kezkatu ziren. Lorpen horretaz oso pozik eta harro nago. Poliki-poliki lortu dugu, taldea indartu da, lotura sendoak josi dira emakumeen artean.

Emakume ugari beldur handia zuen; menpekotasuna, otzantasuna, konformismoa hitzak erabiliko nituzke haien jarretarak deskribatzeko. Horrelako greba bat egiteko adorea eta kemena behar dira. Talde-indarra hain zen sendoa, behera egiten zutenak altxatzeko beste ginen".

MINBIZIA


ZER DEN HERIOTZA

AURREAN IZATEA

Bizitza amaitu egiten da, baina inork ez gaitu pentsamendu horretan hezi. Urruti dagoen zerbait da, besteen kontua... zure azalean bizitzea tokatzen zaizun arte.

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

@xorginkeiak



Minbizia, hitz bakarra da, baina hamaika adar eta bizipen ditu. Imanol Irizar Intxaustik duela 13 urte pasa zuen, linfoma detektatu ziotenean: “Fisikoki oso ongi nengoen, baina egun batean sekulako ziztada izan nuen saihesten aldean. Konplexua da. Linfoma klase honek ez du apenas sintomarik, baina garatzen doa. Hori zen harri-garriena, osasun betean nengoela”.

Diagnostikatzea zaila izan zen. Amerikako Estatu Batuetan zegoen orduan lanean, 48 urte zituela. Osasun sare pribatuan probak eta probak egin ostean ezagutu zuen emaitza. 2006ko maiatzaren aldean eman zioten gaixotasunaren berri eta segituan erabaki zuen Euskal Herrira itzultzea. “Behar nuen babes emozional hori: etxea, familia, lagunak eta inguruaren beharra”. Hemen, ordea, prozesua berriro hasi behar izan zuen: X izpiak, eskanerrak, biopsia, ziztadak... Azkenean, zein linfoma mota zuen eta zein garaturik zegoen ikusi zuten eta tratamendu zehatza ematen hasi ziren. “Kimio saioak, zaldientzako moduko dosiak. Hilean behin ospitalera joan eta egun osoa pasatzen nuen bertan. Ziztadak ematen zizkidaten eta hilabeteke epean erantzun behar nion horri,

hurrengo dosia emateko beharrezkoa. Gorputza guztiz pozoinduta gelditzen da”. Irizarren kasuan prozesuak sei hilabete iraun zuen eta tratamenduari erantzun zion, “lur jota”, baina gaingiduta.

BIZITZA HELDULEKU

Diagnostikoa zehatza zen eta tratamendua ere bai. Alternatibarik ere bilatu ez zuela aitortu du, “konbentzimenduz eta konfiantzaz” jarraitu zuela medikuen bidea. Hala ere, hasieratik argi zuen ez zela soilik medikuen gaia izango: “Ordurako testu bat nuen gaiarekiko erreferentzia gisa: *Medikuak esan dit minbizia dudala*, Joxe Aranzabalena. Baina oraingoan bestela zen: niri ere medikuak esan dit minbizia dudala”. Testu hark bere burua kokatzen lagundu ziola azpimarratu du.

Lehen intuizioa bizitzan aldaketak eman behar zituela izan zen: “Ez pentsa minbizia tokatu zaizula, medikuek sendatu eta lehen bezalako bizitza egingo duzula. Inola ere ez. Hemendik ateraz gero nola bizi behar dut bizitza?”. Egokieraren aurrean jarrera aktiboa hartzera bultzatu zion eta pozik mantentzen du horrek Irizar. “Bide batzuk ireki nituen tratamendu bitartean, gerora mantendu

ditudanak”. Gehienbat elikadura, ariketa fisikoa, lanaren karga eta barne mundua landu dituela kontatu digu. Jaten dugunaren kontzientzia hartu eta kontsumo talde bat bultzatu zuen Pasai Donibanen, bizilekuan. Mendibuelak maiz egiten hasi zen eta eguneroko ariketa minimoa modu sistematikora eramaten. Lan karga %20 inguru gutxitu, xahutzen duen energiaren jabetu eta lana bizitzako lehen planotik atera zuen. Eta barnea ezagutzeko Chi Kung teknika probatzen hasi zen. “Inoiz ez dut jakingo zenbaterainoko eragina izan duen honek guztiak emaitzetan. Baina eragin ona izan dutela ziur. Pertsona bezala, gainera, oso ongi sentitzen naiz”.

Gaixotasunak bizitza aldatzeko aukera eman dio. Baita heriotza naturaltasunez bizitzeko ere. “Ez gaituzte horretarako hezi”, dio. “Azken fasean” zeuden zenbait pertsonarengana hurbiltzeko pausua eman duela sentitzen du, haiengandik urrundu orde: “Ez dut ihes egiten, gerturatu egiten naiz”.

Zer da, beraz, heriotza aurrean izatea? “Bizitzaren ikuspuntua aldatzen da, derrigor. Bizitzari garrantzi handia ematen diot. Laboak dio: *‘bizitza da handiena, galtzea litzake galtzea dena’*”. ●

“Hizkuntz eskubideak bermatzen ez dizkiguten artean talka egongo da”

Arkaitz Zarraga eta Eneka Alvarez. Beren burua zurrumbilo mediatiko biren erdian aurkitu duten bi euskaldun ditugu. Administrazio publikoak hizkuntz eskubideak urratu dizkie biei, eta biek amaitu dute isun banarekin, gaztelania dotorean idatzita. Izebergaren punta dira, arreta deitzea lortu duten bi kasu, egunerokoan salatu gabe eta modu ikusezinean gertatzen diren euskaldunon aurkako erasoen artean.

TESTUA | LANDER ARBELAITS MITXELENA
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

Arkaitz, zuri Bilboko udaltzain batek trafikoa isunaz gain, bigarren isun bat jarri zizun euskaraz hitz egiteko eskatu zeniolako errespetu falta egotzita. Nola oroitzen duzu?

A. Zarraga: Harriduraz hartu nuen. Jaiak amaituta zeuden eta trafikoa itxita zegoen, Bilboko Konpartsetako kideek eta udal langileek erabiltzen zuten bidea hartu nuen autoarekin. Udaltzainak gelditu ninduenean, pentsatu nuen erratu egin zela eta ez zela ohartu konpartsakidea nintzela. Erakutsi nion baimena, baina berak nahiko harroko esan zidan “¿no has visto que has pasado por encima de un paso de cebra?”. Denok egunero egin genuela erantzun nion, banatzaileek, konpartsakideek, garbitzaileek... Gero, dena den, gehitu nion “barkatu, ni euskaraz ari naiz eta niri euskaraz egin mesedez”. Lau udaltzain zeuden, pentsatu nuen berak ez bazekien beste batekin izan nezakeela harremana. Berak orduan, oldartuta esan zidan “yo tengo derecho a hablarte

en cualquiera de las dos lenguas oficiales”. Askotan entzun dudana argudioa da, nik gai horrekin egiten dut lan, eta beraz, ezetz esan nion. Barkatzeko, baina kasu horretan ni nintzela herritar gisa administrazioarekin harremana izaten ari zena, eta administrazioak eskubideen bermatzaile izan behar duela. “Zure eskubidea ez dago nirearen gainetik, zuk nirea bermatu behar duzu”. Orduan, autoritate guztia erakutsiz esan zidan: “Aparca el coche”. Hor sortzen den frustrazioa eta inpotentzia sentsazio gogorra da kudeatzen. Egia da euskaldunok elebidunak garenez, bide errazena gaztelaniaz egitea dela, baina nik eutsi egin nion.

Zer ondorio atera duzu?

A. Zarraga: Batetik, jendeak baduela hori gertatzen denaren kontzientzia, nik babes handia sentitu baitut. Jendeak sinesten du eta euskaldunok badakigu hori gertatzen dela. Bestetik, badagoela jende bat ez duena onartzen

euskaldunok eskubidea dugula. Kasu honetan polizia bat da, agian esanguratsua da ezaugarri hori, euskaltegitik pasatakoa izango zen seguruenik, berak ulertzen baitzidan. Hizkuntza jakiteko eskubidea onartzen zaigu, baina erabiltzekoa ez. Ematen du bigarren mailako eskubidea dela euskara erabiltzea. Batzuetan ez da onartzen eta horren aurka oldartu egiten dira. Gerora, beren gainetik dauden autoritateek babesa ematen diete, bestela ez zuketen horrela jokatu.

Arkaitz, Udalera iritsi zen gaia, eta erantzun gogorra izan zenuen.

A. Zarraga: Bilboko Udalaren erantzuna oso mingarria izan zen. Batetik esan zuten ni gaztelaniaz hasi nintzela eta gero euskara erabili nuela udaltzainaren aurka egiteko. Gainera, esan zuten agentea emakumea zelako jokatu nuela horrela, eta horrek min egiten du. Ikusirik emakumeen egoera zelan dagoen, nork eta



Bilboko Udalak, genero politika hutsaren hurrena egiten duenak hori esatea gogorra da. Min egin zidan, oso harrituta utzi ninduen. Hala ere, euskalgintzatik bezala, mugimendu feministatik ere babesa jaso nuen. “Ez da zilegi feminismoa erabiltzea aurka egiteko, eta badakigu ez dela horrela izan”, izan zen erantzuna. Agian euskalgintzan militatu eta lan egiten dudalako, ezagutzen dute nik ez dudala gaztelaniaz sekula egingo udaltzain batekin eta horrek agerian uzten ditu.

Eneka, zuri antzeko zerbait gertatu berri zaizu. Ertzaintzarekin euskaraz ari zeko eskubidea aldarrikatu zenuen, identifikatu egin zintuzten eta orain Mozal Legeaz zigortu zaituzte. Konta dezakezu nola hasi zen eztabaida?

E. Alvarez: Ernaik antolatutako prentsaurrekoa amaitu zenean, jende asko identifikatzen hasi ziren, grabatzen ari ziren kazetariak eta beste hainbat pertsona. Denbora batera, nortasun agiriak itzultzen ari zire-

nean, kide bati desobedientzia delitua leporatuko ziotela mehatxu egin zion agente batek. Pertsona horrek ironiaz erantzun zion “desobedientzia larria” izango zela prentsaurreko batean entzuten egotea, eta ertzainak gutxiespenez erantzun zion bost axola zitzaiola zer esaten zion, ez ziolako ulertzen. Ni orduan sutu egin nintzen eta esan nion gauza bera esan zezakeela errespetua galdu gabe. Ea zer esan nuen galdezka hasi zitzaidan, errepikatu nion eta erantzun zidan ez zidala ulertzen. Horren ostean hasten da bideoa. Nik esan nion “*si has faltado*”, eta berak “*no he faltado*”. Ondoren dokumentazio eskatu zidan eta saltsa hasi zen.

Ez duzuela isuna ordainduko jakinarazi duzue. Zergatik?

E. Alvarez: Prentsaurrekoko arduraduna identifikatu nahi zutela eta ni pertsona horren eta agenteen erdian jarri nintzela leporatzen didate, arduraduna identifikatzea oztopatu nuela. Hori bideoak

ENEKA ALVAREZ LOIDI

Donostia, 1994. Euskaltegiko irakaslea da. Euskal filologia ikasi du eta gero soziolinguistikan trebatu da. Ernaiko kidea da.

ARKAITZ ZARRAGA

Bilbo, 1972. Basauriko Udal Euskaltegiko zuzendaria da. Euskal Filologian lizentziatua, Soziolinguistika eta hizkuntzen irakas-kuntza landu ditu bereziki. UEU-ko glotodidaktikako sailburua da eta Hau Pittu Hau konpartsa-ko kidea da.

gezurtatzen du, pertsona bat azaltzen baita eztabaidaren erdian esaten bera dagoeneko identifikatu dutela arduradun gisa. Nire eskubideak urratu zituzten eta gezur bat leporatu didate. Bideoak izan duen dimentsioagatik zigor bikoitza dela iruditzen zaigu, mendeku puntua duela. Azpimarragarria da gainera, gutuna gaztelania hutsez bidali didatela. Isuna ez ordaintzea eta errekurtsua jartzea erabaki dugu.

A. Zarraga: Niri ere isuna gaztelania hutsez bidali zidaten.

E. Alvarez: Boterearen adierazpen oso garbia da. "Hemen gauzek horrela funtzionatzen dute", esango baligute bezala. Probokazio puntua du, nork agintzen duen erakusteko beste modu bat.

"Bidea luzea izango dela barneratu behar dugu, ez dago ezer bukatuta hemen. Hizkuntza gutxitua eta zapaldua gara"

ENEKA ALVAREZ

Eneka, zure kasuan Ertzaintzak barkamena eskatu zuen uztailean. Zerbateko balioa du horrek?

E. Alvarez: Barkamen hori ez zen haien borondatez iritsi. Nik aurretik Hizkuntz Eskubideen Behatokian salaketa jarri nuen. Kasua bideratu zuten eta barkamena Behatokiari heldu zitzaion. Nire datuak dituzten arren, ez dira nirekin jarri harremanetan. Barkamen horrek hasieran eskuak garbitzeko itxura zuen, bakea jartzeko barkamen bat zela. Ez gaude ohituta, Gero isuna heldu zen. Gainera egunotan jakin dugu tirabira izan nuen bi ertzainek ukatu egiten dutela barkamena eskatu dutela. Paper hutsa da beraz, inongo baliorik ez duena. Oso zintzo egin ez duten zerbait.

Biak euskaltegiko irakasleak zarete.

A. Zarraga: Kontzientzia berezia dugu horrekin. Nire kasuan, nirekin topo egin zuen udaltzaina euskaltegitik pasatakoa zen. Horrelako ikasle batzuk baditugu, hizkuntz perfilaren bila doaz, eta hori

lortutakoan ez zaie axola handik harago ezer, lana dute eta kitto. Sistema honek porrot egiten duela erakusten du argi eta garbi. Administrazioa ezin da *belarriprest* izan, ez da nahikoa ulermen maila izatearekin. Nirekin euskarazko harreman osoa izatea nahi dut. Gainera, jakin behar dute hizkuntza eskubide batzuk daudela eta beraiek errespetatu behar dituztela, nik neuk erabakitzen dudala zein hizkuntzatan aritu. Hori agerian geratu da.

E. Alvarez: Kasu hauek ez dira isolatuak, oihartzuna lortu dute hainbat arrazoiengatik. Justu gu biok oso jakitun gara gure eskubideak zein diren. Hala ere, hala-koak egunerokotasunean gertatzen dira. Kontua da euskaldunari beti dagokiola insistitzen aritzea, eskubideak gogoraztea... zure partetik indar bat eskatzen du, ahalduntze bat, lan nekeza baita. Hala ere, jende guztia animatzen dut urraketak salatzea, eta eskubideak bermatzen ez dizkiguten artean talka hau egongo da.

"Euskaraz bizi nahi izatea gatazka iturri bat da beti", zenioen Bizkai-ko Hitzan emandako elkarrizketa batean Arkaitz. 2019ko Euskal Herri honetan euskaldunak isun bat jasotzeko aukera gehiago du?

E. Alvarez: Badirudi arazo guztiak konponduta daudela eta horrelako gertaerek erakusten dute ezetz. Gaur egungo hizkuntz politikak antzuak dira, buelta bat behar dute. Ez soilik bermatzeko herritarrek zer hizkuntzatan artatuak izan nahi duten, baizik eta normalizaziora bidean egiteko dauden lan guztiei heltzeko, lan mundua edo administrazioa euskalduntzeko, adibidez. Buelta handia behar du.

A. Zarraga: Paperak denari eusten dio, eraginkortasunera pasa behar dugu. Hemen hizkuntz plangintzetan arlo guztiak hartzen dira kontuan, dela lan mundua, kirola, aisialdia, hezkuntza... baina gero horretarako, baliabideak jarri eta neurri eraginkorrak hartu behar dira. Batzuetan neurri sustatzaile eta motibatzaileak izango dira; beste batzuetan, derrigorotasuna ezartzen dutenak. Horrela ematen dira urratsak. Isuna guri jarri digute eta baliteke hau ikusita euskaldunak hurrengo batean bi aldiz pentsatzea bere eskubideak aldarrikatu aurretik. Isuna eskubidea urratu duenari jarriko balioite, gauzak aldatzen hasiko lirateke.

Arkaitz, zure kasuan ez babes elkarretaratzerik deitu, Eneka, zure kasuan bai. Erantzunak emateari dagokionez, ez al gara oso uzkur ibili?

A. Zarraga: Bai. Nire ingurua Bilbo da eta nahiz eta euskaldun gehien dagoen udalerria izan, nahiko sakabanatuta gaude. Komunitatea ez dago oso trinkotuta eta sentsazioa uzkurra da. Mobilizazio bat egiteko jende kopuru batetik gora ibili behar dugula pentsatzen dugu. Nik uste txikitik hasi behar dugula eta joango garela indartzen, baina bai, hartu behar dugu erantzukizuna. Euskaldunak gara eta horrek ondorio batzuk dakartzela. Euskararena ez dela kontu folkloriko bat, eskubide eta izaera kontua dela erakutsi behar dugu publikoki.

"Isuna jarriko baliote eskubidea urratu duenari, gauzak aldatzen hasiko lirateke"

ARKAITZ ZARRAGA

Eneka, "erasorik ez erantzunik gabe, euskaraz bizitzera goaz" lelopean erantzuna antolatu duzue Ernai eta EHEk. Zergatik?

E. Alvarez: Horrelako erasoak ez dira isolatuak, askotan gertatzen dira eta beti zailtasunaz beterik gabiltza erantzute horretan. Azken urteetan zerbait ikasi badugu, erasoak salatu, publiko egin eta erantzun egin behar zaizela da. Arazoa gizarteratzeko, komunitatea aktibatzeke eta gure eskubideak bermatzeko ezinbestekoa da kalera ateratzea, erakustea gure eskubideak sistematikoki urratzen direla.

A. Zarraga: Ni Garabiderekin Kolonbiara joan ohi naiz eta hango komunitate indigenak oso harrituta daude guk egin dugun prozesuarekin. Izugarrizkoa egin dugu, munduan erakusgarri da, baina gaur egun badirudi egina dagoela. Gu baino nagusiagoek egin duten guztia egin badute, guri badagokigu erantzutea. Horrelako egoeren aurrean agertu beharko gara, bestela gure belaunaldiari zer dagokio? Lortutako apurrak xahutzen joatea? Bide hau ez dago amaituta inondik inora, gure hizkuntza arrisku egoeran dago, munduko beste asko bezala, eta gazteek ere ikusi behar dute borrokatzea dagokigula. Hizkuntza borrokari eutsi behar zaio.

E. Alvarez: Dena eginda dagoenaren us-



tea oso zabaldua dago, gehienbat EAEn. Asko aurreratu da, baina ikuspegia zabalitzen badugu, Euskal Herriko ikuspegi osoaz gain, pertsonen bizi esparru ugariak kontuan hartuz, falta dena ikaragarria dela ikus daiteke. Horri buelta ematea dagokigu, asko dago egiteko, bidea luzea izango dela barneratu behar dugu, ez dago ezer bukatuta hemen. Hizkuntza gutxitua eta zapaldua gara.

Arkaitz, eskatzen urteak daramatzazuen arren, Bilbok ez du euskararen ordenantzarik. Ez dela behar diote.

A. Zarraga: Orain Iruñeak onartu du. Bilboko agintariak euskara gauza folkloriko moduan nola hartzen duten erakusten du. Beti salatu izan dugu. Baditugu ordenantzak hainbat gairi buruz: zaratarena, espazio publikoaren erabilera, zergatik ez hizkuntzarena? Horrek beste estatus bat emango liokeelako. Euskaldunok behar beharrezkoak ditugu euskarri juridikoak, nahiz eta hauen gainetik daudenak ez izan guk nahi genituzkeenak. Gaur egun gaztelania derrigorrezkoa da eta euskara hautazkoa. Langile publikoek ere badakite ez dutela gainetik halako betebeharririk, baina euskaldunok behar ditugu.

Euskaldunoi euskara tarteko egiten zaizkigun erasoek gaitzespen handia jasotzen dute eta Euskal Herri zaballean antolatuta gabeko milaka euskaltzale daude. Euskaraldia pasa berri

dugu, milaka lagunek hartu dute parte. Martin Kitto kazetariak ironiaz zioen orain “Isunaldia” hasi zela. Mugimendu euskaltzalearen borroka nola ikusten duzue?

A. Zarraga: Berrian gai honen inguruan idatzi nuen artikulu bat. Euskaraldia bere gorabeherekin eredugarria izan da, baina ikuspegi psikosozialari eragiten dio. Badira hain serio hartzen ez diren beste eremu batzuk, adibidez, hizkuntz eskubideena edo hezkuntza sistemak ez duela behar bezala euskalduntzen. Neurri zorrotzak hartu eta baliabideak jartzea eskatzen du horrek. Kanpaina mediatiko handiak egiten ditugu, horretan oso trebeak gara, baina gero beste gauza batzuk aztertu gabe pasatzen ditugu. Beste adibide bat jartzearen, euskaltegiek izan duten papera eta egun dutena behintzat aztertu egin beharko genuke. Azterketa sakona eta neurri eraginkor eta hausnartuak atera behar dira. Unibertsitate mailan ikerketa ugari egiten dira, baina gero ez dute islarik benetan gure egunerokoan, edo euskalgintzaren tresnak ez daude horretara egokituak. Egokitzapen prozesu serio bat behar dugu.

E. Alvarez: Badirudi zerbait mugitzen ari dela. Jende asko dago, baina atomizaturik, elkartzeko potente bat falta zaigu. Azken aldian diskurtso berri baten beharra ere azpimarratu da. Faltza da *klika* edo zerbait: aktibazioa, trinkotzea, helburu berriak jarri, dena ordenatu, hamarkada

honetan nora joango garen erabakitzea, nora iritsi nahi dugun hurrengoan, nola egingo dugun hori, pixka bat hausnartu eta aurrera jarraitzea.

Aurrera begira zuen kasuetan zer?

A. Zarraga: Helegitea jarria diegu bi isunei. Trafikokoak ez du biderik, isuna jartzen badidate hemendik aurrera ezingo da bide hori erabili, eta hori kristoren traba logistikoa izango da Bilboko jailetan, bide naturala delako txoznagunetik ateratzeko. Beste isuna juridikoki oso argia da, nik euskaraz *“puta chula”* esan niola dio udaltzainak, eta nik nahi dut berak adieraztea ea nola esaten den hori euskaraz. Ikasleei ere irakatsiko diet. Uste dut ez direla astotik jaitsiko, jarraituko dutela eta isuna ezarriko didatela. Aktibazioarako besterik ez bada ere, jai bat egingo dugu, dirua ateratzeko Bilboko euskalgintza astintzen saiatzeko.

E. Alvarez: Errekurtsoa jarriko dugu guk eta ikusiko da zertan geratzen den. Honek balio behar du jendea animatzeko salaketarako. Ikusi behar da komunitate bat badagoela, babesa egongo dela eta eraso eta urraketa horiek salatuko ditugula. “Ez zaizu zuri bakarrik gertatu, oso ohikoa da, eta zure atzean egongo da jendea zu zaintzeko, babesteko, isunak iritsiko balira era kolektiboan ordaintzeko, bidean ahal dena egiteko”, da mezua. Guzti honek balio dezala hurrengoek indarra sentitu dezaten. ●

“ *Nahikoa da maitasun erromantikoaren propaganda egiteaz*”

BRIGITTE VASALLO

“Lagunak baino ez gara” esaldiaren gisakoak adibidetzat, monogamia harremanak hierarkizatzen dituen sistema piramidala dela defendatzera dator Brigitte Vasallo (Bartzelona, 1973) bere azken argitalpenarekin. Oveja Roja argitaletxearekin *Pensamiento monógamo, terror poliamoroso* (Pentsamendu monogamoa, polimaitasun terrorea) saiakera aurkeztu berri du idazle eta ekintzaile feministak. Monogamiaz, polimaitasunaren desbideraketa neoliberalaz eta harremantzeko paradigma berrien beharraz mintzatu gara berarekin.

TESTUA | AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

ARGAZKIAK | IBAI ARRIETA

Zure liburua irakurtzean kontzeptu batzuk gaizki ulertuta zituela konturatzen da bat, “monogamia” kasu. Praktikatzat jotakoa, sistema da izatez.

Oraintsu arte maitasun kontuak zokoratu egin dira, eztabaidarako espazio nagusiak publikoak —eta ondorioz maskulinoak— izanik, ez zen gaiaz hitz egiten. Monogamia praktikatzat jo izan da zuzenean, eta ez da hala. Praktika bat balitz, nola azaldu denok praktika berbera izatea? Hori era sistemikoan besterik ezin daiteke azaldu. Monogamia sistematzat jotzeak, derriortu egiten gaitu egiten duguna eta gertatzen zaiguna eremu kolektiboan eta politikoan kokatzera.

Monogamiaren egitura piramidalaz ohartu ezean, polimaitasuna berau errepikatzera kondenatua dagoela diozu.

Hala da, eta ondorioz monogamian ematen diren bazterketa berdinei ematen zaie bide polimaitasunean ere. Piramidea existitu bitartean, gailurrean ez da denontzako tokirik izan. Era berean, denontzako tokia egitea ez da dirudien bezain sinplea, problematikoa da oso. Egiteko horretan, sarri justiziaren etika agertzen da zaintzaren etikaren orde, eta harremanak, besteak beste, modu patriarkal eta kapitalistan ulertzen hasten gara oharkabeen: “Zuk bost harreman badituzu nik ere horrenbeste nahi ditut” bezalako logikak





agertzen dira, indarkeria mordoari bide ematen diotenak. Agian ez ditut behar edo ezin ditut neure gain hartu bost harreman, beharbada hirurekin hobeto nago eta errazagoa zait dena.

Polimaitasuna logika neoliberalaren arabera ulertzeko joera nagusi delako kritikatu duzu. Dionez, buffet bat bailitzan antzematen da, zeinetan norbanakoak kontsumogai bilakatzen diren.

Polimaitasunean, buffeteen bezala, sarri nagusitzen den pentsamendua da hurrengoa: “Libre denez, guztiarekin aurrera”. Nahiz eta digerigarria izan ez, zerbitzariari gutxi ordaintzen zaiela jakin, edo kontsumo mota hori jasagarria ez dela begi bistakoa izan. Ordura arte urritasunean eta giltzapean bizi izan garela ondorioztatuta, kontsumo arduragabearen bidez desastrea eragiten dugu “aske” sentitzeko. Nik nahiago dut hain aske ez sentitu, horrela guztiok lasaiago eta emozionalki lagunduak bagaude.

Polimaitasunaren izenean, aldiberean edo serian harreman monogamoak izaten dituenik ba omen da.

Monogamia apurtzeko saiakeran bikotekide kopuruari bakarrik erreparatuz gero, monogamia praktikatzen jarraituko dugu. Etengabe ikusten ditugu halako adibideak: norbanakoak horrela harremantzen dira bizitzako aro “abenturazalean”, baina egiaren ordua heltzen denean, erreproduzitzeko asmoa izan ala ez, bikote erreproduktorea eta bizitza egonkorra eratzen dituzte. Iraultzailetzat jotako hura anekdota huts bilakatzen da, ziurrenik burgesak izango diren ilobei kontatzeko modukoa.

Izatez monogamoak diren praktikak infiltratu zaizkio polimaitasunari?

Polimaitasuna modan jarri da, eta horrek eragin du identitate baten bueltan erakitzea, ez ezinbestez praktika batzuen bueltan. “Etikoa bada polimaitasuna da, polimaitasuna bada etikoa da” baieztapena horren adierazle. Guzti hau maila identitarioan ematen ari da, baina non daude praktikak? Non dago eta zein da etika? Nork definitzen du?

Monogamia naturaltzat jo dugu, nahiz eta hau indarrera inskribatu diguten araua izan. Beronen ezarpena historian non kokatzen den behatzeko ariketa egin, eta

Estatu klerikal eta kapitalistaren sorrerarekin topo egin duzu. Nola eragin zuen harremanetan?

Behin betikotasunez. Eraikitze prozesuan zen estatua kapitalistaren eta eliza kristau katolikoaren botereen artean aliantza argia eman zen Europako hegoaldean. Zehazki, beraien beharriaz nekin bat egiten zuen jendarte mota eraikitzeke batu zituzten indarrak. Hala bada, elizak bizitzeko era ezberdinak suntsitu zituen, kristauak asko. Beraien intereseekin bat ez zetozen bizimoldeei 'sekta heretiko' deitu zieten, izatez ez sekta ez heretiko ez baziren ere. Inkisizioak eman zien izen hori, hauen suntsipenari ekiteko.

Sektatzat jotako komunitateetan sexu harreman askotarikoak ematen ziren, era komunitarioan eta erreproduktzio helbururik izan beharrik gabe. Generoak lausoagoak ziren gainera, ez bilakatu diren bezain zurrinak, eta desparekotasuna askoz txikiagoa zen. Baina hori guztia suntsitu egin zen, kapitalismoak oso gizonak diren gizonak eta oso emakumeak diren emakumeak behar baititu. Eta hori monogamiaren bidez eraikitzen da.

Gizon oso gizon eta emakume oso emakume horiez mintzatzeko erregistro marka darabilzu liburuan.

Bai, zeren erregistro markadun emakume© eta gizonetaz© ari garenean, ez gara mintzo gutako inortaz. Erregistro markadun gizon eta emakumeak gure bizitzetan daude, baina eredu gisa, eta eredu hortara bultzatzen gaitu etengabe sistemak. Horrek, alde batetik, gure bizitzetan eragiten du; bestetik, gure bizitzek eredu bera elikatzen dute. Zirkulu biziotsu bat da. Erregistro marka baliagarria iruditzen zait hau guztia bistaratu eta gizon zein emakume eredu horiek kapitalismoarekin lotzeko.

'Disney maitasuna' deitu duzunari ere jarri diozu erregistro marka.

Zure maitasun istorioa, besteena ez bezala, betierekoa eta letra larritz idazten den horietakoa dela pentsatzeko joeraren oinarrian dago Disney maitasuna©. Horren adierazle da, adibidez, buruan darabildan Jennifer Lopezen abesti bat, zera dioena: "Ez nik ez zuk, ez daukagu kontrola". Eta nire buruari galdetzen diot: nork dauka kontrola orduan? inork ez? bietako inork ez badu kontrola, argi eta garbi, sistemaren eskuetan dago. Disney maitasuna ez dela existitzen ohartu behar gara, eta maita-

sun kontuen gainean daukagun erabakitzeke gaitasunaz jabetu. Horrez gain, bai gure zein gurekin harremanetan diren pertsonen afektuen gaineko ardura dugula argi izan behar dugu.

Kontzientzia hartzeari dagokionez lan ederra daukagula, alegia.

Ikerketa batek zioen maitemintzen den garunak kokaina kontsumitzen duen bezala jokatzen duela. Hala bada, ulertzen da kokaina kontsumitu edota maitemintzearen ondorioz, garunak jokabide jakin bat duela. Eta diot nik: ez da izango maitasunarekin drogekin bezala harremanetan garela, eta horregatik jokatzen duela garunak jokatzen duen moduan maitemintzean? Sintomei behatuz gero, esan daiteke hala dela: insomnioa, arnasa falta, sabela itxita, antsietatea, paranoiak, memoria falta, eta abar. Nola liteke maitemintzea bezalako gauza eder batek hainbesteko ondoeza sorraraztea?

Interesgarria deritzot hau guztia sistemaren baitan kokatzeari, beronen

gainean hausnartzeko. Uste dut hitz egin beharra daukagula, ezinbestekoa da maitasun arloko deskalabruak denoi gertatzen zaizkigula onartzea. Halakorik egin ezean, eman dezake sistematik ateratzeko gai den jendea badela, eta horrek ez dauka inolako zentzurik, denok bizi baikara honen baitan, gauzak ahal ditugun hobekien eginaz. Gainera, komunitateak berebiziko garrantzia dauka hemen: norbera heltzen ez den hausnarketetara heldu daitezke besteak, eta horrek ahalbidetu egiten du maitasun harremanetan

ikusten ez ditugun zenbait gauzetaz ohartzea, komunitateari esker.

Hainbeste indarkeria barnebiltzen dituen maitasunaren esparruan, hau oso garrantzitsua da. Ez baikara ari gure maitasun buruhausteez soilik, feminizidioez ere ari gara.

Nik asko zirikatzen ditut sare sozialetan beraien bikotekideekin ateratako

argazkiak jartzen dituzten feministak. Nahikoa da maitasun erromantikoaren propaganda egiteaz, ardura kolektiboa dugu kontu honi dagokionez.

**“
bai gure zein gurekin
harremanetan diren
pertsonen afektuen
gaineko ardura dugula
argi izan behar dugu**”



Komunitatearen garrantzia azpimarratu duzu. Honen gainbeherak ere lotura zuzena du Estatu klerikal eta kapitalistaren sorrerarekin.

Garai hartaz diharduen *Caliban eta Sorghina* (Elkar) saiakeran Silvia Federic ez du monogamiaz hitz egiten, baina bai sexu harremanak barnebiltzen zituzten komunitate festez. Sexu harremanok komunitarioak ziren eta ez zuten helburu erreproduktiborik, harremantzeko era bat gehiago besterik ez zen sexua, hori baita izatez. Baina kriminalizazioaren eta desperekotasunaren bitartez gorputzen eta sexualitatearen gaineko kontrola ezarri zen, plazera eta existentzia bera konplikatu dizkiguna.

Sistema monogamoaren baitan, norbanakoak identitatea bikotekidearen arabera eraikitzen duela diozu. Hala bada, hausturak identitate galera bezala bizi ditugu. Haustura kodeak finkatuta daude, oso argiak eta biolentoak dira, eta zorrozki jarraitzen ditugu honetaz guztiaz

kontzientzia hartu eta bestelako hausturak planteatu ezean. Nire bizipenetan oinarrituta esan dezaket bestelako hausturak posible direla, nahiz eta sistemaren aurka egitea eskatzen duten, baita ingurukoek esaten dizutenaren kontra aritzea ere maiz. Aukeratu dezakegu bikote izandakoaren kontrako gudarik ez hastea, eta haustura polit bati bide ematea. Horrek ez du esan nahi mingarria izango ez denik, mina sentitu eta dolua pasa behar dira. Kontua da aukeratu egin daitekeela mina eta dolua nola pasa. Harreman bat etetea eta norbaiti bihotza erdibitzea gauza ezberdinak dira.

Monogamoa sistema zapaltzailea den heinean, erresistentzia egin behar zaiola defendatzen duzu.

Bai, maitasunetik ahal izatera. Erresistentzia egiteak ez baitu ezertarako balio gure kontra etorriko bada. Ibilbide luzea daukagu aurretik, segidan akitzea ekidin behar dugu. Egunerokoa eta etengabea den erresistentzia behar dugu, kontzientzia eragiten duena. Ez gaudela prest? kapitalismoa suntsitzeko ere ez, nor dago halako ezertarako trebatua? Baina nire ustez hori ez da aitzakia ez borrokatzeko eta indarkeria eragiten duen sistema hau elikatzen jarraitzeko. Eta sistema monogamoaren kontra borrokatzeak ez du esan nahi zazpi bikote izan behar dituzunik. Sinplista litzateke halakorik ondorioztatzea, hain konplexua den arazo baten aurrean. Gure arrazoiketa erreallitatearen konplexutasunaren mailan egon behar da.

Nik antikapitalismoarekin alderatzen dut: kapitalismoaren dimentsioaz eta honek gure bizitzetan daukan eraginaz ohartzetan gara, eta aterabideak bilatu. "Mendira noa bizitzera, eta behar dudako oreka kabuz ekoitziko dut" bezalako irtenbideak ez dira aproposenak. Alabaina, kapitalismoari egunez egun erresistentzia egiteko praktika ugari badaude, berau arrakalatzeko asmoz martxan jartzen ditugunak. Monogamiaren kontuarekin berdin egin behar dugula uste dut.

Bestetik, indarrean den polimaitasun neoliberalaren aurrean, komunitatea eta zaintza ardatz dituen bestelako paradigma bat aldarrikatzen duzu.

Ez da gauza berria sistemak disidentziak bereganatzeko duen joera. Borroka bat modan jartzea berau harrapatzeko ahalgina da. Hor sartzen dira jokoan egunerokotasunean eta gure sareetan praktikan jarri ditzakegun erresistentziak. Ez da erremedio magikorik existitzen, baina baditugu martxan jarri daitezkeen prozesuak, txikiak diruditen arren oso eraginkorrak direnak. Monogamoak ez diren harreman mota asko egon badaude, esanguratsuak iruditzen zaizkidanak. Eta espero gabeko tokietan eraikiak izan dira: bazterretan. Paradigma berriak ez baitira sistemaren bazter modernoetan sortuko. Benetan baztertuak izan diren izkinetan, hor sortzen dira erresistentziak, beharrian hutsagatik. Eta asko erakutsi diezagukete.

"Polimaitasun terrorrea" aldarrikatuz ixten duzu liburua. Zeri egiten dio erreferentzia termino horrek?

Terminoak ildo asko ditu: batetik, izua eragiten dugu polimaitasunaren aldeko diskurtsoarekin, ideia edo diskurtso sinplista bat hedatu delako honen bueltan, jendeari pentsarazten diona gaiaren inguruko hausnarketei bide emanez gero bikotekidea izateari utzi beharko diola, edo aldi berean hainbat harreman mantendu beharko dituela; bestetik, polimaitasun neoliberalaren praktikak geure kontra darabilgun terrorreari egiten dio erreferentzia; erlazioak mantentzeari, inguruari edo hauskor izateari diogun terrorrea ere barnebiltzen du, oso gorrak iruditzen zaizkidan terrorreak.

Baina batez ere, terrorrea hedatzeko deia da, beti ere patriarkalak ez diren bideetatik. Terrorrea ereitea, gobernagaitz bilakatu gaitezen. Horretarako, ordea, arrakalak egin behar zaizkio sistemari, eta beronen kontrako praktiken bidez egin erresistentzia, ez diskurtsoaren bitartez. ●



Benetako antzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)


DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu



© 943 453 588 · www.sigacus.com

Al-Andaluseko emir eta kalifa baskoiak



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena

Milagro (Nafarroa), 860. Kordobako emir Muhammad I ibn Abd ar-Rahmanen erasoaldi batean, Gartzea Enekoez Iruñeko bigarren erregearen seme Orti eta biloba Oneka atzeman zituzten, eta Al Andaluseko hiriburura eramán.

20 urtez bahituta izan ondoren itzuliko ziren Iruñera; Orti I.a Gartzez errege izendatuko zuten aita hil zenean eta Oneka Azeari Antso Larraungoa lehengusua- rekin ezkonduko zen bigarren. Baina ez zituzten giltzapean gatibu izan; errege leinuari zegozkion era handiak izan zituzten Kordobako gortean eta emirerriko agintariarekin harreman adeitsu eta estuak izan zituzten. Batez ere Onekak, emirraren seme eta oinordeko Abd Allahrekin ezkondu baitzen lehenengo aldiz. Baina ez zen emirraren familian odol baskoia sartzen lehena izan. Beti ere Ibn Hayyan, Al-Udri eta garaiko beste kronikari batzuen arabera, Abd Allahren ama ere baskoia zen.

Onekak eta Abd Allah I.ak hiru seme-alaba izan zituzten. Muhammad II.a semea izango zen hurrengo emirra eta hark ere emakume baskoia hartuko zuen emaztetzat: Muzna.

Muhammad eta Muznaren seme Abd ar-Rahman III.ak bere burua kalifa izendatu zuen eta Kordoba Mendabaldeko Kaliferriaren hiriburu bihurtu. Bilakera hura justifikatzeko, omeiatarren oi-



'ABD AR-RAHMAN III.A ETA BERE GORTEA', DIONISIO BAIXERAS, 1885. KORDOBako LEHEN KALIFAREN BIRRAMONA, AMONA ETA AMA BASKOIAK ZIREN.


nordeko zela argudiatu zuen, Mahomaren oinordeko, beraz. Baina baskoien seme, biloba eta birbiloba izaki, baskoietik gehiago zuen arabiarretik baino. Ibn Hayyanek jaso zuenez, Al-Andaluseko lehen kalifa ilegorria zen, azal zurikoa eta begi urdina, eta ilea hennaz tindatzen omen zuen itxura arabiarra goa izateko.

Eta hala ere, Maryam baskoiarekin ezkondu zen. Haien seme Alhaken II.ak ere Subh izeneko esklabo baskoia hartu zuen haremean. Atal honetan bertan jaso genuenez (ARGIA, 2508. zenbakia), Subhek

Hisham kalifaren ama izateaz gain, benetakotako botere politikoa lortu zuen, hasieran Almanzorrek batera eta, ondoren, haren aurka jardunez.

Almanzorren seme Abd ar-Rahmanek ez zuen lortuko kalifa tituluari eustea, 1009. urtean hil baitzuten. Kaliferria Taifenen erresumetan zatituko zen orduan. Baina ezetz asmatu Abd ar-Rahmanen ama Abda nongoa zen? Baskoia, jakina. Gartzea Santxez II.a *Ikaratia* Iruñeko erregearen arreba zen, Antso Nagusiaren izeba, beraz, eta sorterrian Urraka esaten zioten. ●

Agripina ez omen zen hain gaiztoa



Agripina Gaztea (K.o 15-59), Kaligularen arreba, Klaudio osabaren emaztea eta Neron ama, bere maltzurkeriagatik eta, besteak beste, senarra hiltzeagatik da ezaguna. Baina Emma Southon historialari ingelesak haren biografia argitaratu berri du, bestelako irudia azalduz. "Diplomazialari eta politikari bikaina izan zen. Bere izenean agintzen

utzi izan baliote, enperadore handitzat genuke, esaterako, Marko Aurelio bezala". Tazito eta Suetonio historialarien bidez izan dugu nagusiki Agripinaren berri, beti ustelkeriari eta gaiztakeriari lotua, baina, Southonen arabera, "soilik gizonezko boteretsuekin erlazionatuta aipatzen da testuetan, haien ekintzen menpean". ●

HURRITZA EDO HURRONDOA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuraren eta egurraren garaia izan ohi da negua. Gure kulturaren erabiltzen diren gehienak neguan moztzen dira. Zura gogorrak, iraunkorrak, tentsio eta indar handiak jasan behar izango dituztenak, ilbehera hauetan botako dira. Ilgo-retakoak eta beste urte sasoi batzuetakoak izango dira zura bigunak edo lantzen errazak eta malguak emango dituzten enborrak botatzeko lanak.

Zuraren antzera gertatzen da egurrarekin. Su bizi eta gar handiak emateko egur arinak ilgoran botako dira; aldiz, gar ahulagoa baina txingar iraunkorragoa emango duten egur trinko astunak ilbeheran. Horiek ere bakoitza bere sasoiaren.

Abadiñoko Sanblasetan azienda orraztu berrien erakustokiaren aldameneko baxter batean gizaseme batek hurritz-makilak (*Corylus avellana*) saltzen zituen. Makila aukera ikusgarria erakusten zuen: zuri, gorri, nabar, arre, mehe, lodi, motz eta luze. Lagunak makila bat nahi zuen, eta beretzako egokiena zein zen erabaki ezineko tarte luzeak garai batean tratuan nola aritzen ziren ekarri zidan gogora. Meheak ditu gustuko, mehea eta luzea. Eta zein kolorekoa? Zuria, gorritzta? Hauxe polita. Ekarri hona. Hartu, beheko muturra oinaren kontra jarri, goiko punta-

tik esku eskuinarekin heldu eta ezkerrarekin erditik makotzen saiatu. Dotore okertu da, baita, utzi orduko, bere on zuzenera etorri ere. Besazpirainoko makila mehe zurizta etxerako. Etxerako bidea egin aurretik, azokan ugaria zen bi hankako ganadua gobernatzeko ederki etorri zitzaion, izan ere, giro zen ba!

Makotu edo okertu eta bere onera bueltatuta, atzera zuzen-zuzen geratze hori bilatzen da hurritz-makilan. Sasi aihena jotzean, sasiz berro zoazenean eta sasi-sastraka salto eginda igarotzeko, inori bizkarra berotzeko edo bide-zidorrean behera makilak heldu behar zaituenean, hori behar da, egur malgua, bihurkorra eta era berean zimela.

Hurritz-makilak edo hurritz-zigorak egiteko azaroko ilgoran hurritzaren altsumak moztzen diren hurritz-txarakan, hurritz-sastraka eta hurritz-malda ugari izan ohi da. Hurritzatik datorrena. Mitxel Elizanburuk 1890ean idatzi zuen: "Uzta hur-ondoa ageri da hur handietarik; urritzta, hur ttipietarik". Beraz, hur ale handia landua da, etxekotua, hurritzetik gure kulturak sortua, eta arbola hurrondoa edo uzta hurtzea. Hurritza basa da, ale ttikia ematen duena. Makilatarako eta zigorretarako alde ederreko zimela dena. ●

BIDARRAI

GAZTAINA BIZIBERRITZEKO ELKARTE BERRIA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Azaroan sortu zuten Bidarrain Gaztaina Elkartea, eta urtarriaren bukaeran egin dute elkartearen lehen biltzar nagusia. Luhuso, Makea, Lekorne, Heleta eta Bidarraiko hainbat nekazari eta auzapezek hartu dute parte, gaztainaren etorkizunaz kezkatuta eta hura sustatzeko xedearekin. “Ari gara pentsatzen mendi zola hauetan zer produkzio sar daitekeen, eta hor bada aukera bat, jada badauden gaztaindegia zertan diren ikusi, lur eremuak garbitu eta jendeari horiez baliatzeko aukera emateko”, azaldu du Jean Michel Anchoroquy Bidarraiko auzapezak Euskal Irratietan.

JAPONIATIK EUSKAL HERRIRA

Historia bitxia du gaztainak gurean: gaztainondoak bertan ohikoak ziren arren, 1870 inguruan gaitzak jota galdu ziren gehienak. 1909. urtean urrundik iritsi zen egun hemen zabaldua dagoen gaztaina barietatea: Japoniara joandako bi misiolari euskaldunek ekarri zuten gaztaina japoniarra Euskal Herrira. Ipar Euskal Herriatik hasi zuen bidea gaztaina iritsi berriak, Sarako eta Zuraideko lan-

daketa handietatik. Gerora, gure geografia guztiko basoetara zabaltzen joan zen.

Gaztaina Elkartearen bultzatzaile nagusietakoa den Beñat Itoiz gaztainarekin esperimentatzen aritu da azken urteetan, eta uste du garai batean gurean izan zuen garrantzia eta ekonomia berreskuratu litekeela: “1958an gaztainaren merkatu ugari izaten ziren astero Bearnon eta Ipar Euskal Herrian. Bistan da bizitzan eta ekonomian egondako aldaketek gaztaina uztea eta ahanzteka ekarri dute, baina jendearen gogoetan beti mantendu da gaztainarekiko lotura”.

GAZTAINAK FORMA UGARI

Bidarrain duen tailerrean gaztainarekin produktu ezberdinak egiten ditu Itoizek: ogia, irina, krema, baita garagardoa ere. Jaki sanoa eta gure mendiei oso lotua izanik, gaztainari dagokion garrantzia ematea da elkartearen helburuetako bat. Ahaztu gabe gaztainaren ekoizpenak aukera ekonomiko berriak ere ekar ditzakeela: “Interesgarria izan daiteke zenbait gazterentzat gaztainarekin lotutako proiektuak abiatzea”, dio Heletako auzapez Filipe Etxeparek. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

OTSAILAK 20

HENDAIA

Erlauntza eta erleen onurak tailerra.
14:30ean Cpie-n.

OTSAILAK 22

GASTEIZ

Hazi ekologikoen sorkuntza tailerra.
18:00etan Dehesa etxean (Olarizu).

OTSAILAK 22

BARAKALDO

Lorategiko landare bitxiak tailerra.
11:30ean Barakaldoko Natur Gelan.

OTSAILAK 22

DEIERRI

Lur bankuak: Lurzaindia eta Red Terra, bi kasu praktiko hitzaldia.
17:00etan Deierriko Udaletxean.

OTSAILAK 22

OLARIZU

Haziak ereitea eta horiei buruzko lantegia dokumentala emango dute
18:00etan Olarizuko Etxaldean.

OTSAILAK 22

ZIZURKIL

Sagardoaren kondaira: Olimpotik Valhalara dastaketa. 19:00etan Atxulondo tabernan.

OTSAILAK 23

ZEANURI

Ipiñaburu auzoko gaztandegira bisita Jon Etxebarria eta Puy Arrieta artzainekin. 18:00etan Dehesa etxean (Olarizu).



IZENA EMATEKO:

gorbeia.parde.naturala@bizkaia.eus
946 739 279



1972ko ekainaren 11



KOLDO IZAGIRRE

Baiona Bilborekin lotuko zuen benetako bidexabala izanen omen genuen autopista. Negozio arrotz hura euskaldunen onerako izan zitekeen nolabait, egituratu eginen baikintuen bizkarrezur senidegarri batean. Gero eta multzo murriztagoa eta egunean baino egunean garrantzi ekonomiko eskasagoa zeukan sektoreak nozitu zuen aurrerapena. Donostiako mugapean zegoen Intxaurren auzunean hemeretzi baserri suntsitu zituzten, nekazaritzako lursail handi bat azpiratuz. Usubilen, besteak beste, Udarreri bertsolaria zenaren Artikula Aundi baserria birrindu zuten. Intxaurren berriz egun kale izena den Otxoki baserria bota zuten, hura ere bertsoleku.

Ni naiz Otxoki deitzen nautena, hola zan gure etxea, neronen bistan egokitu zan teilatuak lur jotzea, hura ikusita nere barruak pasatu zuen trantzea! Nere bihotzak dadukan penik ez da posible kentzea.

Terry del Valeko markesarentzat izan zen desjabetzaren mozkina, baserritarretan banaka batzuk baino ez ziren lurjabe. Lau urte eman zituzten etxeak noiz botako zizkieten, eta hustu beharra era gogorean egin zen, indar armatuen begipean eta egun batetik bestera.

Hasarre xamar hartu gaituzte oso gorroto gogorrez geren etxetik ateratzeko desafioka egurrez, andre eta gizon, zahar eta gazte, guziak hoi beldurrez, hilabeteen famili asko egundu gera negarrez.

Patxi Lazkanok bi bertso sail egin zituen gertakari honetaz. Lehenaren hiru bertso Basarrik argitaratu zituen *La Voz de España* egunkarian zeukan atalean, eta berehala zabaltzen ziren kaltetuen, herriarren eta bertsozaleen artean. Beldur pixka bat pasatu behar izan zuen Patxi Lazkanok, 1975-76 urte haiek, izan ere... ●

1985 LARRUN ALDIZKARIAREN LEHEN ZENBAKIA

Galderek erantzuna aurkitu zutenekoa



Larrun aldizkariaren lehen zenbakia. 90 orriko liburuxka zen hasiera hartan.



MIREN OSA GALDONA

@Mirentx_U

Berehalakotasunaren eta iraungi data geroz eta mugatuagoa duten kazetaritza lanen garaiotan, esan liteke sakontasunak eta hausnarketak leku urria dutela. Egunerokotasunak pausarako tarte gutxi ematen duen arren bada hilabeteen behin zaharberrituta plazaratzen denik. “Sepia koloreko 16 orrialdez osatuta dago eta ARGIA aste-kariarekin batera banatzen da hilabete bakoitzeko azken astean”. Horra *Wikipediak* gaurko gonbidatuaz diona. Ideiarik bai nor den?

1985an sortu eta 1994ra arte bere kabuz argitaratu zen *Larrun* aldizkaria. Egun ARGIAren hilabetekaria den arren, urtero lau ale kaleratzen zituzten hastapenetan; urtaro bakoitzak *Larrun* berri bat zekarren besapean. Ideia Pello Zubiriari zor zaiola inork gutxi eztabaidatzen du, baina zergatik hasi beste aldizkari batekin lanean, eskuartekoak nahiko lan ematen zuenean? Argi du Patxi Larrionek: “Guk galderak genituen, ez erantzunak”. 1991z geroztik *Larrun* aldizkari zuzendari aritu zen Larrion. Mima eta miresmena darizkie bere hitzei argitalpen kuttunaz galdetutakoan, hala baino ezin baita ulertu argitalpen bakoitzeko ale bat gordeta izatea.

Maiztasuna eta diseinua salbu, ezberdintasun gutxi antzeman daiteke iraganeko eta egungo argitalpenen artean: gaur egun bezala, oihartzun handiko gaiak ziren orduan hizpide, beste hedabideetan ahots urria zutenak. “Gaia edozein izanda ere, zenbaki bakoitzean elkarriketa sakon eta luze bat sartzen genuen. Mamira iristeko galderak egin behar baitira, eta hasieran esan bezala, guk galderak baino ez genituen”, dio Larrionek. Berarekin batera kolaboratzaile ugari osatzen zuten *Larrun* 90eko hamarkadan. Urte loriatuaren ostean, bada, ekaitza krisi moduan iritsi zen, eta argitalpena eten behar izan zuten hiru urtez. 23. zenbakia izan zen Larrionen ardurapean plazaratutako azkena; ez zen izan behin betiko agurra ordea. 1998an ARGIAko lan taldeak berriz ekin zion *Larrun* idazteari, egun duen dinamika eta forma emanez. Eraberritzen jakin badu ere, oinarriek sendo iraun dute denboran, eta xede bera izaten jarraitzen du: gai bakoitzaren mamia aurkitzea, eta hari-mutur ezberdinak jorratzea. Jarrai beza urte luzez erraiak azalera-tzen, egunerokoari pausa ematen, kontzientziak astintzen. ●

Euskaraz informatzen eta Polizia grabatzen jarraituko dugu



ARGIA @argia

Gure lana egitea albiste bilakatu dute beste behin ere, tamalez. Funtzionario publikoen jardun publikoa espazio publikoan grabatu eta publikoki zabaltzea da berriz ere leporatzen diguten "delitua". Zehatzago esanda, 22125 eta 23044 gisa identifikatu diren bi ertzainek salaketa jarri dute ARGIAko kazetari Lander Arbelaitz Mitxelenaren aurka, 2018ko maiatzaren 21ean Donostian pertsona bati hizkuntza eskubideak nola urratu zizkionten grabatu eta zabaltzeak "iraindu" dituela esanez.

Gogora ekarri nahi dugu, hain agerikoa izan zela euskaraz bizi zen Eneka Alvarez herritarraren eta erdaraz aritzera behartu nahi zuten ertzainen arteko kasua, ezen Ertzaintzak berak publikoki barkamena eskatu baitzuen irailan, maiatzaren 21eko gertaeretan "hizkuntza eskubideak ez bermatzeagatik".

Hizkuntza eskubideak ez babesteagatik botere publikoak barkamena eskatzea, euskaldunoi arraro egiten zaigu oraindik. Keinu osasungarria izanik ere, oso gutxitan gertatzen den zerbait delako. Eta horrek lotura zuzena dauka oso ohikoak zaizkigun eraso euskarafoboak grabatzeko zailtasunarekin. Hau salbuespena izan da.

Baina edozelan ere, eta Ertzaintzak barkamena eskatu badu ere, bi ertzainek biktimaren aurka jo dute -Mozal Legea erabiliz, 600 euroko isuna ezarri diote-, baita urraketa informatu zuen ARGIAren kontra ere. Polizia hedabide baten kontra, kazetaritza egiteagatik. Azken urteetan European nagusitzen ari den jarrera da. Informazio

deserosoa publikatzen duten kazetarien aurka salaketak jartzen dituzte kazetariak beldurtzeko asmoz.

Iñigo Cabacas auziko audioengatik Iñaki Soto eta Iñaki Iriondo *Garako* kazetariak deitu zituzten epaitegira; Ahotsa.info-ko lagunek, terrorismoa goratzea egotzita, deklaratzera joan behar izan zuten preso batzuen ongi etorriei buruz informatzeagatik; Ignacio Escolar eta Raquel Ejerique Eldiario.es-ko kazetariak epaiketa izan dute Cristina Cifuentesen kasua argitara ateratzeagatik. Eta Mozal Legearen mehatxu eta aplikazio orokorrak gure jardun profesionala baldintzatzen jarraitzen du, 2015ean onartu zenez geroztik, Hala Bedi eta ARGIAko kazetariak, besteak beste, ondo dakigunez.

Poliziaren jardunaren berri emateak arriskutsua izaten jarraitzen du oraindik. Autozentsurari aurre egiteko "Grabatzea ez da delitua" kanpainan adierazi genuenez, Polizia grabatzea herritar guztion eskubidea da, funtzionario publikoen gaineko gardentasuna eta kontrola bermatzeko, eta herritarrok gure burua babesteko dugun bide eraginkorra da.

Ez da lehen eraso ARGIAren aurka, ezta kazetari honen aurkakoa ere. Eta aurrekoetan jakinarazi genuen bezala, oraingoan ere kalean gertatzen denari buruz informatzen jarraitzeko asmoa dugu.

Komunitate sendo batek eusten du proiektu hau. Eta sostengu ekonomiko eta sozial horri esker kazetaritza independentea egiten, Polizia grabatzen eta euskaraz bizitzeko eta informatzeko segituko dugu. ●

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



ARGIAREN EGUTEGIAREN EUSKARRIAK

Karlos Irazu eskultoreak haritz zurez eta burdinez Argiarentzako eginak. Horman zintzilikatzeko gakoa dute atzealdean.

PREZIOA: 50 euro

Argiaren egutegia opari jasoko duzu.



IZAR ETXEBERRIAREN LAMINA

ARGIA Jendeak Musutruk eskuratu dezakegu 20x20cm-ko lamina hau. Otsailaren 21ean 10:00etan jarriko dugu, azoka.argia.eus webgunean bizkorren dabilenarentzat: ez da zozketa.



NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu Argia Jendearentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira.

Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da. Denon esku dago Argia Komunitatea elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.



Zer hoberik herriminaren kontra, kanta berriak egitea baino?

Herri kantaren erroetara jo du; esperimentazioaren esperientzia makulu, piezak entzulearen memorian irauteko nahia akuilu. Norabide, kolore, ertz eta instrumentu askotako musikaria da, baina ahotsean oinarrituriko disko gordin eta biluzia kaleratu berri du: *Hil zara* (Repetidor).

TESTUA | GORKA EROSTARBE LEUNDA @gerostarbe1
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

Bilboko Errekalde auzoan entseatze-ko lokala partekatzen du, egun, beste dozena erdi lagun eta musikarirekin Ibon Rodriguezek (Sestao, Bizkaia, 1978). Hiru piano / organo dituzte bertan. Ez litzateke leku txarra kantaren batzuk grabatzeko ere. Bere habitata du lokala; eroso sentitzen da instrumentu artean.

Noranhiko belarria dauka musikari poliedrikoak; herri musikanantz bezala esperimentalerantz zuzendua modu nabarmenean, eta hortik aurrera, zein atzera, edonorantz. Txistulari eta dantza taldeetan aritua gaztetxotan, Eten rock esperimentaleko taldeko kide eta gidari gisa lau disko plazaratu ditu; Xabier Montoiaren eta Mursegoren diskoetako ekoizle lanak egin izan ditu, eta Montoiaren beraren diskoetako nahiz zuzenekoetako parte izan da, baita Borbor, Manett, Le Noise eta beste hainbat proiektutakoa ere. Gargaran bikote modura aritu izan da, ahots inprobisazioa eta esperimentazioa ardatz izanik. Egun Txaranga Urretabizkaian ere jarduten du, metal haize instrumentuekin esperimentazioa lantzen duen talde zabalarekin.

Bakarka aritu izan denean Ibon RG izenarekin aritu izan da; egin ditu emalndiak eta grabatu ditu kantak; baina hau du bakarkako lehen diskoa. Disko bikoitza da *Hil zara*, hamasei kantaz osaturikoa eta hamar hazbeteko biniloan jaso. Lehen aldean *a capella* kantatutako zortzi abesti bildu ditu (estudioz kanpoko lekuetan grabaturik: bi bunker, eremitorio bat eta leize bat). Bigarreanean, piano hutsaren laguntzaz kantaturiko beste zortzi (Eibarko musika eskolan grabatutakoak). Repetidor Kataluniako zigiluarekin plazaratu du lana, eta lehen kontzertuetako asko Katalunia aldean emango ditu. “Onena litzateke mikrofonorik gabe eta leku natural horietan jotzea, baina, horrek zailtasunak ditu”.

***Hil zara II* kantari, bi diskoei amaiera ematen dien horretan, “kantu hau besterik ez zara” diozu errenkada batean. Une honetan zu ere hauxe zara, kantu hau, disko hau?**

Ez, ez nuke hori esango, saltsa gehiagotan ere banabilenez. Uste dut hau baino gehiago ere banaizela. Hitzak ez azaltzea

nahiago dut baina justu zerrendatze hori, eta “kantu hau besterik ez zara” bertso-lerroa, letrek iradoki dezaketen irmotasunari aurre egiteko kantatzen dut, piasua kentzeko: “Kantu hau baino ez zara”, deus ez zara, alegia. *Hil zara*-ren ideia ere irekia da; esan diezaiokezu asko maite duzun bati edo asko gorroto duzun bati. Interpretazio asko izan ditzake: faltan botatzen duzulako edo nahiago duzulako berriro ez ikusi. Agian gehiegi azaltzen ari naiz, eta ez nuke hori nahi.

Musika ulertzeko modu baten oso oinarria joan zarela esan liteke; oso muinera joan zarela, kanta huts eta biluts horretara?

Bai, oinarrian kantua dago. Nire oinarria beti izan dira herri kanten moldeak. Baina nik herri kanta berriak sortu nahi izan ditut. Ematen du herri kantak ez dituela inork sortu, baina sortzaileak izan dituzte. Beti izan dut gustuko herri kantak abestea, besteen kantak abestea; lagunekin geratu eta kantatzea. Aspaldian hiru lagun geratzen ginen hiru ahotsetara kantatzeko, tabernetan eta,

A portrait of a man with dark, curly hair and a beard, wearing a dark hoodie. He is looking slightly to his right with a thoughtful expression. The background is a blurred grid pattern.

IBON RG

beste inolako pretentsiorik gabe. Ez genuen asmoa talde bat sortzeko. Zuberoako kantak hartzen genituen eta kantatu; baina horri buelta bat eman nahi nion, nire perspektibatik melodia berriak sortu eta *a capella* egin.

Errora jo?

Bai, errora jotzea da. Herri kanteak duten gauzarik inportanteena da oso kantu biziak eta askeak direla, ez daudelako oso lotuta erritmo bati, harmonikoki ere oso biziak dira, etengabe aldatzen dira. Ez du inporta desafinatzeak, eta erritmo oso itxi batean ere ez doaz; askatasun horren bila ere nahi nuen jo kanta hauek egitean. Azkenean atera da disko bat *a capella* eta beste bat pianoan. Baina nire hasierako asmoa *a capella* hutsez egitea zen, eta esango nuke kanten ehuneko laurogeita hamarra *a capella* emateko sortuak direla, baita pianokoak ere.

Zure ibilbidearen une honetan sentitu duzu beharra biluztasun eta oinarri horretara joateko?

Aspaldi nuen behar hori, kontua da orain

gauzatu dudala. Ekainean izango dira bi urte grabatzen hasi ginenetik, baina zenbait melodiak izango dituzte pare bat urte gehiago ere. Hor egon dira gordeak, sakelako telefonoan grabaturik eta abar. Melodiek denboran barrena beren bidea egin dute. Nire bakarkako ibilbidean ahotsaren inprobisazioa landua nuen, biluztasun hutsean... beraz disko hau kaleratu aurretik eszenatokira igoa nintzen ahots hutsarekin, mikrofonorik gabe inkluo. Hori, beraz, ez zen arazoa, beti maite izan dudalako herri musika.

Herri musika nola ulertzen duzu zuk?

Benoa, herri musika esatean, ez da soilik popularra izatea, hori ere bai akaso... baina nire helburuetako bat zen gogoangarria izatea, melodia memorian geratzea. Kanta asko buruan ditudala esnatzen naiz askotan, eta hori gogoangarri izatearen seinale da. Herri musikara jo nahi nuen daukan askatasunarengatik, baina ez soilik askatasun idealizatu horrengatik, askatasun teknikoarengatik baizik, ez duelako eskatzen

ez berebiziko teknikarik ez halakorik. Nik ez dut neure burua kantari ontzat hartzen, eta are gutxiago birtuosotzat. Gehien gustatzen zaizkidan kantariak oso punk dira zentzu horretan.

Herri kanta bera nahiko punka ez al da berez?

Bai, baina nire belaunaldiak, edo nik neuk, kontrako norabidean jaso duela iruditzen zait: punk izeneko hori zen gauzak egitera bultzatzen zintuena, ez herri musika, konturatu gabe hori jada asmatua zuela folklore izeneko horrek. Dantza taldeetan izan dudan ibilbidean, eskola oso ontzat izan ditudan arren –errepertorio ikaragarri zabala ikasi dut bertan–, eszenatokiekiko mendekotasun handia bizi izan dut, zentzu popularretik aldendu samarra, trebeenen luzimendurako prestatutako koreografiak, partitura itxiak eta metronomoa. Eszenatokitik jaistean gozatzen nuen gehiago folklore hori, eta hala ikasi dut maitatzen, konturatu arte hasierako ideia harekin ez duela zerikusirik, zer-bait librea eta bizia behar duela izan.

Zure baitan nola ezkontzen dira punk kultura eta herri musika?

Nire ustez biek ematen dituzte gakoak ahalduntzeko, eta minimalismotik abiatuta gainera. Ezer gutxiarekin potentzia handiko kontuak egiteko ahalmena, eta edonoren esku jarritz baliabideak.

Herri kanta berrien beharra nabaritu duzu?

Nik ez dut ezer asmatu; Zuberoako herri kantak dira erreferentzia nagusi, baina

pixka bat nekatuta nengoen herri kanta zaharrak behin eta berriz kantatzeko joerarekin, herri kantak salbatu behar horrekin... Artxihoak daude eta salbatuta egongo dira, ez dira behin eta berriz berritu behar. Herrimin handia dago horrekiko. Hala ere, ez dut ezeren kontra egin nahi izan. Asmoa izan da erreperatorio horri nire aleak gehitzea. Hemendik 200 urtera ez dakit inor gogoratuko den kantatu horiekin, baina hor egongo dira kantok... Eta 200 urte barru aurkitzen

dituenak, ba goza ditzala, nik duela 200 urtekoak gozatzen ditudan bezala.

Herri kanta gutxietsita dago?

Ezagutzen den apurra gainbaloratuta dago, eta herriminak jota. Denarekin bezala gertatzen da: ehuneko bost inguru ezagutarazi, eskuztatu eta matxakatzen da. Ezinezkoa da denera heltzea, ados, baina zenbat energia joaten zaigu ehuneko bost horren inguruan bueltaka?

Zuberoako herri kantek noiz harriatu zintuzten?

Beti egon dira hor, eta lagun artean beti gustatu izan zaigu parrandan abestea. Edozer gauza kantatzea, ez Zuberokoa, nahiko jarduera zoldatsua zen gure inguruan, hala ere. Serioago, edo finago etxartarren eta Robert Larrandabururen *Eperra* diskoarekin hasi ginen geratzen, 2004 aldera.



**EZ DUT NEURE
BURUA KANTARI
ONTZAT HARTZEN,
ETA ARE GUTXIAGO
BIRTUOSOTZAT.
GEHIEN GUSTATZEN
ZAIZKIDAN KANTARIAK
OSO PUNK DIRA
ZENTZU HORRETAN**



Hala ere, idealizazio moduko bat ez al dugu "iparraldeko kantaeraren" inguruan?

Bertako kantaerak baditu ezaugarri berezituak, melodia batzuk tonu laurdene-tatik igarotzen dira eta ez da oso ohikoa gure inguruan. Baina horretaz gain, kanta sorta zabal eta ederra dute, eta gainera urtero egiten diren pastoraletarako idazten diren kantetako askok maila ematen dute, eta urtez urte gehituz doaz erreperatorio horretara, herri kantak dirudite sorreratik. Iazko Jean Bordaxarren *Bela-*



ko Zaldüna-n badira bospasei kanta go-goangarri. Eta zer hoberik herriminenaren kontra, kanta berriak egitea baino?

Esperimentazioa batetik, herrikoitasuna bestetik. Izan liteke jende gehienarentzat ulertzen zail den bikote bat, eta zuretzat uste baino gertuago daudenak?

Bai, nik ulertzen dut esperimentaziotik datorrela dena, edozein konposaketa, akatsak egin eta akats horiek zuzentzetik... Egia da zuzeneko inprobisazio kontzertuetan ez dagoela borragomarik. Hor egin behar dut aurrera, eta akats batek zabaltzen dizu beste bide bat. Askotan nahi ez duzun nota bat bihurtzen da ezinbesteko edo bai ala bai jarri beharrekoa. Igual txarto zapaldu duzu tekla bat, eta hortik etorri da beste melodia bat. Gero kontua da esperimentala zeri esaten zaion...

Zeri esaten zaio?

Esperimentazioa hitz handiegi modura planteatzen da askotan. Askotan etiketa bezala geratu da. Nire ustez musika esperimentala da emaitza jakinik izango ez duen prozesu bat. Askotan pentsatzen dut ez daukala zentzurik disko esperimental bat grabatzeak, zer berez esperimentuak berak du garrantzia, prozesu horrek, eta ez emaitzak. Gero nik neuk horrelako disko asko ditut baina... Esperimentazioaren terminoarekin fartsa handia dago, agian aldatu egin behar da eta kito. Askotan esperimentaltzat jotzen dira ez dakit gure musika kultura gabeziarekin edo bakoitzaren *background* musikarekin lotura duten gauzak. Norberarentzat lehen deskubrimendu izateak ez du esan nahi esperimentala denik. Askotan 1960etan egiten ziren gauzei esaten zaie esperimentala.

Ariketa esperimental horiek jendearengana iristeko oztopo batzuk badiutuzte. Edo ez?

Bai, musika esperimentalak herrikoitzat hartzeko arazo kontzeptual batzuk planteatzen ditu. Praktikan ere bai. Baina ez zait asko inporta hori, egia esan. Nik esaten dudanean kanta hauek popularrak edo herrikoiak direla, esan nahi dut nire perspektibatik herri kantak zer diren. Niri herri kanta asko ez zaizkit gustatzen. Herri kanta ez dut esaten zentzu sozialean hainbeste, baizik eta memoria kontu bat bezala gehiago, eta ulertuta niretzat publikoa ni naizela, nik entzun nahiko nukeen gauza bat.

Publiko batengana iristeko kantak dira, hala ere?

Bai, ilusioa egiten dit ez dakit nork esateak gustatu zaiola. Eta min handiagoa egiten dit segun eta nork esaten badit ez zaiola gustatu. Baina plazara ateratzen garenean, jada ez dago nire esku. Niretzat lan hau ia egina dago, eta orain disfrutatu nahi nuke kantatzen. Ez litzaidake gustatuko jende askorengana iristea edozein preziotan.

Sortu liteke herri kanta bat jendearengana iristeko bokazio sendorik gabe?

Horrelaxe sortu behar dira kantak, horrelako bokaziorik gabe. Jendearengana iristeko biderik eraginkorrenak beti egoten dira musikatik at, beste parametro batzuetan lortzen da hori. Inoiz salbuespen bat egon liteke, baina merkatuak markatzen du hori.

Letrak beti azkenerako utzi ohi dituzu. Zergatik?

Oso ondo pasatu dut oraingo honetan, eta gustura samar geratu naiz, baina ni-

retzat lan nekeza izaten da. Balio izan dit konturatzeko zer-nolako pisua daukan hitz bakoitzak. Eta hitz bakoitza nola kantatzen duzun, edo hobe esanda, silaba bakoitza. Fonetikak berak ekar dezake hitz bat eta ideia bat. Kanta tarareatzen hasten naiz eta agertzen joaten dira. Fonemak hitz batera eramaten zaitu eta hitz horren esanahiak alda dezake dena, kanta osoa alda dezake, ez mezua bakarrik, baita forma hori ere. Baina letrak baino ez dira...

Zer esan nahi du "letrak baino ez dira" horrek?

Ni saiatzen naiz letra oztopo handia izan ez dadin kantarentzat. Nire lana horrrantz doa. Hitz baten esanahiak ez kentzea kantarekin aurretik eginda neukan lan hori, baina langintza zaila da letra oharkabean pasatzea, oso biluzik baitago dena. Eta polita da hori ere...

Azken urteetan agertu da musikari sorta bat herri kanta, esperimentazioa, pop izaera uztartu dituen, dela Mursego, dela Amorante, Joseba Irazoki... Hor kokatzen duzu zeure burua?

Lagunak gara, belaunaldi berekoak eta, oso mundu ezberdinetatik etorri arren, garai batean Arto Artianek, Artelekuk eta abarrek elkartu gintuzten, praktika esperimentalen inguruan ezagutu genuen elkar. Ulergarria izan daiteke aurrekari horiekin halako talde bat dagoela esatea, baina nire ustez, eta zorionez, oso proposamen ezberdinak dira elkarren artean. Funtsean, uste dut "eszena" dei litekeen zerbait elkarlan eta sinergia faktoreak gidatuta sortuko litzatekeela, eta ez egon daitezkeen zenbait ezaugarri estetiko edo zirkuntantzialek. ●

www.bertsozale.eus



IRURITA
Otsailak 16, 17:30ean, Gizarte Bilgunean
Xabier Maiz Etxebarria, Xabier Tenorero Gortola, Joanes Ilarrugi Marzol, Petri Castillo Gasciarena, Xabier Ilarrugi Marzol eta Endika Legarza Nolin
Gai-jakintza: Zigor Garcia Arregi "Zuri"



Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019

Autotitzalea



Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

LIZARRA
Otsailak 17, 17:30ean, Gazteriaren Etxean
Eneko Lachoz Martinez, Julen Zelaita Iriarte, Josu Sanjaio Alzuari, Amaia Elzagoren Varela, Soral Robles Viza eta Diego Rialto Barroso
Gai-jakintza: Ander Abarburo Arriola



Laguntzailea



Artziniegako Museo Etnografikoa hil-hurren

Artziniegako Museo Etnografikoa (Araba) herritar talde baten ekimenez sortu eta garatu izan da 35 urtez. Egindako lanari esker, Euskal Herriko lanbide eta bizimoduaren inguruko bilduma aberatsenetako bat jasotzea lortu du. Urte hasieratik museoa itxita dago, ordea, Udalaren eta erakusketa kudeatzen duen Artea Elkartearen arteko desadostasunen ondorioz.

JOSU NARBARTE

Txikitik sortutako erakundea izan da Artziniegako Museo Etnografikoa. Lehen urratsak 1977. urtean eman zituzten, herriko jaien harira gazte talde batek erakusketa bat antolatu zuenean. Ekimenak arrakasta izan zuen, eta hurrengo urteetan eskualdeko lanbide zaharrek lotutako materialak biltzen hasi ziren; museo bat eratzeko ideia 1981ean sortu zen, eta 1984ko irailean zabaldu zituzten ateak, Arteko Santutegiko ukuilu izandako lokaletan. 2004an, espazio-arazoak zirela eta, museoa udalak utzitako eraikin batera aldatu zen, 3.700 metro koadroko erakusketa-esparrua atonduz. Trukean, museoko sarreraren bidez jasotako dirua udalari ematen diote orduz geroztik.

Egun, museoak 14.000 bisitari baino gehiago jasotzen ditu urtean, 1.800 biztanle dauzkan herri batean. Euskal Herriko bilduma oparoenetako bat gordezen duen erakusketa iraunkorraz gain, jarduera desberdinak antolatzen dituzte, baita hainbat argitalpen plazaratu ere, herrian doan banatzen den *Gurdi* aldizkaria kasu. Denbora honetan, museoaren kudeaketa Artea Etnografia Elkartek eraman du modu autonomoan. Zuzendaria, idazkaria eta diruzaina asanbladan hautatzen dituzte, eta hirurak boluntario aritzen dira lanean. Finantzaketa, aldiz, Artea elkarteak

Arabako Foru Aldundiaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdiei esker lortu du azken urteotan. Diru horrekin, bisita gidatuen zerbitzuaren, garbiketa zerbitzuaren, eta informazio-eta kudeaketa-guneen azpikontratazioa ordaintzen dira, besteak beste.

ZERBITZU KULTURALEN ESPARRUAN ERE NAHASGARRIA SUERTA DAITEKE IKUSPUNTU KAPITALISTA BATETIK, BAINA SARRI BAITA EZKERRAREN ALDETIK ERE, SEKTORE PUBLIKOA ETA PRIBATUA SOILIK BEREIZTEN DITUEN LOGIKA APLIKATZEA

2017an, ordea, Arabako hezkuntza-aisialdiko eta animazio soziokulturalerako enpresen sektorearentzako hitzarmen kolektibo berria onartu zen —profesional hauen lan baldintza oro har prekarioez ere luze mintza liteke—, besteak beste gutxieneko soldaten igoera aurreikusten zuena. Egoera horren aurrean, proiektuaren ardura-

dunak Udalarekin harremanetan jarri ziren, museoaren finantzazioa birplan-teatzeko beharra helaraziz. Artea Elkartek ez du funts propiorik, eta inoiz diru-laguntza batek kale eginez gero, gida-zerbitzua bazkideek beren poltsikotik ordaindu ordez, Udalak gastu hori bermatzeko eskatu diote.

Udalaren aldetik, Iñigo Gomez alkateak urtarrean sare sozialetan zabal-dutako mezu batean adierazi duenez, ezin dute Artea Elkartek proiektuaren kudeaketan duen erantzukizun ekonomikoa beren gain hartu. Hortaz, gida-zerbitzua ordaintzeko ardura hartzekotan, udal gobernu taldeak (EAJ) bildumaren titulartasuna udalaren esku gelditzea eskatu du, zuzenean ala fundazio baten bidez. Arteatik, aldiz, erantzun diote fundazio bat sortzeko proposamena urrian luzatu ziotela udal gobernuari, estatutu-proposamen eta guzti; elkarteak salatu duenez, honen erantzuna txosten juridiko bat izan zen, patronatuaren gehiengoa Udalarantzat exigituz. Ez dirudi, beraz, gatazkaren funtsa hertsiki diru-kontu bat denik, proiektuaren gaineko kontrola zeinek izan behar duen zehazteko lehia bat baizik. Emaizta ezaguna da: herrian giroa asko nahasi da eta, urtea hasi zenetik, museoa itxita dago, ateak berriro zabaltzeko datarik gabe.





'MUSEO BIZIA' ekitaldia Artziniegako Museo Etnografikoan. Urtean behin egiten dute, bildumako materialekin zuzeneko esperientzia lantzeko. Artea Elkarteko kideek zein museoako lagunek hartzen dute parte, baita herriko eskolako haurrek ere. Ezkerrean: taberna. Eskubian: botika. Argazkiak: Garazi Ureta Ofizialdegi.

KULTUR AZPIEGITUREN KUDEAKETA-EREDUA, AUZITAN

Ez da erpin gutxiko gaia. Euskal Herriko museo eta kultur azpiegitura gehienak, egunerokoan azpikontraten bidez kudeatuta egon arren, publikoak dira edo fundazio publiko-pribatuen esku daude. Fundazio hauen patronatua erakunde publiko desberdinek eta partikularrek osatzen dute, proportzio desberdinetan. Baina, salbuespenak salbuespen, orokorrean haietako batek dauka parte-hartze nagusia eta, horrenbestez, museoaren politika zientifikoa, komunikazio estratategia edota kontratazio-politika bideratzeko erabakimena. Artziniegako kasua berezia da zentzu honetan, Artea Elkartea baita, entitate "pribatu" gisa, proiektua era autonomoan kudeatu eta beharrezko finantzaketa lortzeaz arduratzen dena, diru-laguntza deialdi publikoen nahiz ekarpen partikularren bidez.

Auzi honek erakusten duenez, zerbitzu kulturalen esparruan ere nahasgarria suerta daiteke ikuspuntu kapitalista batetik, baina sarri baita ezkerren aldetik

ere, sektore publikoa eta pribatua soilik bereizten dituen logika aplikatzea. Honen ikuspegian, izan ere, ez dira kabitzen irabazi-asmorik ez duten eta jabego eta interes kolektibora bideratuta dauden ekimenak. Hauek elkartasun eta ardura

INORK MUSEOAREN KUDEAKETA-EREDUA ALDATU NAHI BADU, ONA LITZATEKE LEHENIK ETA BEHIN AZALTZEA ZEIN ARAZO IKUSTEN DIZKION MUSEOA GAUR DENA IZATERA EKARRI DUEN EREDUARI

printzipioetan, atxikimendu askean, tokiko errealitatearen ezagutza eta erakunde publikoekiko autonomian oinarritzen dira sarri, eta argi dago, beraz,

beren praxia oso urrun dagoela enpresa pribatu baten ohiko jokabideetatik. Ikuspuntu honetatik, funtsezkoa da txikitik kudeatutako ekimen-esparruak mantentzea, azpiegitura kulturalen arloan ere, bertan sortzen eta partekatzen diren diskurtsoen aniztasuna bermatzeko.

Artziniegako kasura itzulita, ezin da ahaztu pertsona askok beren lanarekin eta atxikimenduari 35 urtez ondutako proiektu batez ari garela. Inork museoaren kudeaketa-eredua aldatu nahi badu, ona litzateke lehenik eta behin azaltzea zein arazo ikusten dizkion museoak gaur dena izatera ekarri duen ereduari. Udalak proiektuan parte-hartze handiagoa izan nahi izatea zilegi da, eta bide asko ditu ekarpenak egiteko; baina horretarako garrantzitsua izango litzateke, urte hauetan guztietan proiektua aurrera eramanez duten pertsonen lana aitortuta, egoeraren diagnosi zintzo batetik abiatzea, eragile guztien artean irtenbiderik egokiena bilatzeko. Bitartean, museoak itxita jarraituko du, guztion kalterako. ●



LIBURUA

Neska indartsua



A
LORENA MARTINEZ ORONoz

IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA
(IRUN, 1973)

DENONARTEAN, 2018

32 orrialde / HAURRENTZAT

XABIER ETXANIZ ERLE

Liburuak, normalean, bilduma batean kokatzen dira. Irakurleak, horrela, badaki nolakoa izan daitekeen, norentzat, zer genero edo estilotakoa... Denonartean argitaletxeak haurrentzat eginiko liburuak ez daude bildumetan, bakoitzak neurri, ezaugarri, estetika edo estilo berezia du. Liburu bakoitza ezberdina dela esan dezakegu eta, alde horretatik, ezingo genuke esan Lorena Martinezen azken lan hau berezia dela, nahiz eta ikusiko dugun bezala, oso liburu bitxia eta aparta izan.

A du izenburu liburu honek. Eta izenburuak, kolore gorriko letrak, azala betetzen du egilearen eta argitaletxearen izenei ia garrantzirik eman gabe. Liburuak, gainera, uztaiez enkoadernatuta dago eta liburuaren fitxan 32 orrialde dituela esan badugu ere, egia esan, 16 dira orriak, guztietan atzeko alde zuria baita.


Liburuak duen berezitasuna edo izaera aparta, baina, ez dator aurretik aipaturiko ezaugarri horiengatik. Liburuak irudi sinpleen bidez kontaturiko istorioa dugu. Egia da lehen orrian gerora agertuko den kontakizunaren nondik norakoa azaltzen dela. Baina, nik neuk, irakurlea kontakizun idatzi labur horretaz paso egitera gonbidatuko nuke eta Lorenak ederki iradokitzen duen istorioan murgiltzera.

Otsoa agertzen zaigu lehen irudian, orrialdearen ezkerrealdetik datorrela korrika, itxura gaizto eta maltzurrez. Bigarren orrian neskatoa ikusten dugu, orriaren eskuin aldean lasai eserita eskuinera begira. Otsoaren burua agertzen da ondoren ezkerretik neskarengana oлдartzeko prest... eta laugarren irudian oihuka, "A" oihukatuz, neska ikaratzten.

Ez gara hasiko hemen zer adierazten

duen eta nolakoa den otsoari buruzko irudia gure imajinarioan. Herri ipuinetan animalia maltzur eta bortxatzaile gisa ageri ohi zaigu otsoa eta normala da neska protagonista erasotua sentitzea, izututa eta ikararuta egotea. Horren orde, baina, Lorena Martinezek otsoari aurre egiten dion neska erakusten digu, bera ere "A" esateko gauza dela; are gehiago, otsoak baino ozenago egin dezakeela oihu.

Benetan interesagarria liburu honetan egiten den proposamena. Haur txikiak (neska izan ala mutila) heldu, indartsu, erasokorraren aurrean aurre egiteko baliabideak erakusten dizkien obra da; are gehiago, beti apal, isil, beldurti izan diren nesken kasuan adoretzu, indartsu, ausartak izan daitezkeela. Eta, era berean, indarkeriaren aurrean maitasuna, laguntasuna, dela dugun armarik indartsuena. ●



DISKOA

Kontzeptua, gogoa eta intentsitatea



Asier, Mikel, Koke eta Okik 2016an sortu zuten Giante taldea.

IKER BARANDIARAN

@ikerBarandiarra

Gasteizko laukote honek harrituta utzi nau post-hardcorea biziberritu izanagatik; energia biziko kontzertuak egiteagatik; eta estreinako lana disko kontzeptuala delako. Historiako gertaera latzak aukeratu eta bakoitzari kanta bana idatzi diete: 12 guztira, *Gernikako bonbardaketa*, *Gasteizko Martxoak 3*, *Leningradoko guda*, *Srebrenica* zein *Malaga-Almeria*, besteak beste. Hori guztia *This is fine* izenburu ironikoarekin.

Asier, Mikel, Koke eta Okik 2016an sortu zuten taldea eta, konturatu orduko, estreinako disko oso txukuna dute kalean, bi sari garrantzitsu eskuratu dituzte –Bilbo Hiria lehiaketan Azkena Rock eta Kultura Live sariak jaso dituzte–, eta ikusleen harrera oso beroa jaso dute. Eta beraiek esker onez eta ahalik

eta kontzerturik borobilenak ematen bizi dute hau guztia.

Taldearen emaitzak batez ere 90eko hamarkadan AEBetan aritu ziren hainbat talde gogora ekartzen badigu ere, diskoan “Diska hau Vitoria-Gasteizen egin da. Eskerrik asko” leloa jaso dute eta, hain zuzen ere, hiri arabarreko Sargasound SLL estudioan grabatu dute Koldo Sagaskumeren gidaritzapean.

Diskoa zabaltzen duen *Fat boy* piezak emo eta post-aren arteko orekan, erritmo bizian eta ahots indartsuz men egiten dio hainbeste maite duten At The Drive In-i. Jarraian dator *Unit 731*, hardcorearen adiera zabal eta bizi horretan, Rites Of Spring bailitzan. *Defense of van*-ek denetik dauka: post-hardcore labela, intentsitatea, dotorezia, tempo erdiak eta giro bereziak. *The beziers of*



THIS IS FINE

GIANTE

COSMIC TENTACLES, 2018

knife massacre gordinagoa da, zuzenagoa, nahiz eta erritmo aldaketekin ere jolasten duen. *Azoka Eguna* ilunagoa da, makurragoa, Lisabö eta enparauen girokoa. Eta A aldea ixten duen *Leningrad blokada* noisearen eta post-hardcore zapalgailuaren aliantza.

Paperak die Fugazieroagoa da, nahiz eta lelo eta gitarra rockeroak ere badi-tuen. *Operation vegetarian* Fugaziren tempo erdian kokatzen da, baina Make Up eta Zen Gerrilla xuxurlari zein psikodelikoenak agurtuz. *Machete girl* ere koktela da: pop-etik abiatuta Placebo gordinenera arte. *3 de marzo* instrumental itogarria. *Srebrenica* erritmo aldaketekin aberastutako suziria. Eta, azkenik, *Malaga-Almeria* muturrean jarritako post-hardcore urgentzia. Ipini ezazue arreta! ●



Betidanik, betirako

Hurrengo emanaldiak:

Otsaila: 22an Beasainen eta 23an Errenterian

Martxoa: 1ean Elgoibarren eta 10ean Billabonan

Apirila: 3an Hernanin eta 13an Amurrión

ALE GOIKOETXEA

Ostera ere Arriagara, osterera ere zirrara eta gogo beretsuarekin. Oraingo honetan baina Arriaga kanpoaldean giro berezia somatu dut, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra protestarako bildutakoen artean, antzokira sartzeko ilara luzea.

Asteburu eroa izan dugu parez-pare taula gainean, kuadrillako baten ezkon aurreko agurra ospatzeko aitzakian, aspaldian elkartuko gabeko sei lagun kuadrilla batu dira landa etxe batean. *Betidanik* izandako lagunak, *betidanik* ezagututako egia ezkutuak azaleratuko dituzte, eta orduan hasiko da benetakoa festa. Alkohola, drogak, eta horiei laguntzeko aspaldian esan gabeko gauza ugari. Azkenetarako baina, landa etxean dagoen erlauntzako erleek egin ohi duten moduan, hitz, oihu eta dantza eginez, bata bestearekin komunikatuko dira, *betidanik* errotutako hori betirako sendotuz.

Komedia ederraz gozatzeko aukera izan dugu, eta berriro ere, Errastiren gidoiak, ezusteko barre algar bat baino gehia-

ERLAUNTZA ANTZEZLANA

NOIZ: urtarrilak 13

NON: Bilboko Arriaga Antzokia

Zuzendaritza: Mireia Gabilondo

Testua eta zuzendari laguntzailea: Kepa Errasti

Eszenaratze espazioa: Fernando Bernués

Aktoreak: Itziar Atienza, Naiara Arnedo, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia eta Leire Ruiz.


go lapurtu dit. Komedia indartsua, bizia, elkarrizketa sano eta hizkuntza jator eta zainduarekin. Denbora dezente pasatu da antzokian horrelako giroa topatu ez dudanetik.

Eszenatoki gainean lagun kuadrilla baino aktore zerrenda paregabea ikusi dut, sarritan ez bezala denak emakumeak, ederra hau ere! Zaila egiten zait aktore zehatz baten lana nabarmentzea, denak ere onena eman baitute. Aitziber Garmendiari egokitu zaio protagonista rola eta taxuz bete du papera, baina talde-lana izan da oraingo honetan Arriagako eszenatokian nabarmen.

Arriagatik sarri egin dut salto neure lagunen arteko Kabauko bazkarietara. Gara ikusten nuen uneoro selfie-ak atera eta momentuak izoztu nahian, Andrea gure arteko haserreetan zentzua jarri guran, Paula berriz momentu bakoitzari musika jartzeko ahaleginean... Merezi du, Vaiven konpainiaren azken lana ikusteko tarte bat hartzea. Barre eginaz norbere lagun arteari erreparatzeko, eta *betidanik* alboan dauzkagun horiek balioan jartzeko ez bada ere. ●



Sudoku



EZKER-ESKUIN:


1. Gipuzkoako udalerria (argazkian). Barik. **2.** Jira. Zilindro formako gauzakia, barne-hutsa duena, tutua. **3.** Ikertzaile. **4.** Haize musika-tresna, U formako tutua duena. **5.** Balio handiko apaingarria, bitxia. Ezbeharrak sortzen duen sentipen mingarria, bihozmina. **6.** Jaurtiketa. Atzera eragin. **7.** Altzairuzko lanabesa, lima mota ale-larria. Dantzaleku berezi. **8.** Euskal jaka tipikoa. Sakontasunaren neurria.

GOITIK BEHERA:

1. Abiatzea. Tik-..., erlojuären hotsa. **2.** Toka, du. Bira, itzulia. **3.** Ur-emari. **4.** Akatsak. **5.** Normalean gauzez egiten dena. Lama. **6.** Toki hartan. Haur hizkeran, musu. **7.** Tattarra. **8.** Nafarroako udalerria, Izarbeibarren **9.** Pare bat. Irri, burla. **10.** Eusko Alderdi Jeltzalea. Abaguneak, aukerak. **11.** Infanterian, gradurik apalena duen militarra. **12.** Okaran. **13.** Geldi, lasai. **14.** Deus. **15.** Ar sortzaila.




ERRAZA



7A11 A

Esqera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA
BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA
ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK,
BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Behartsu, pobre
Jaurtiketa
Jardun, eragon
Egoki, erako
Hitzarmena
Nekatu
Nekagarri
Muturra
Desiratu
Urrats
Omena, sona
Sama, iduna
Haragia

[illegible]**EBAZPENAK**

ANAGRAMAK

5	1	7	3	9	4	6	8	5	1
2	9	7	3	8	7	6	4	2	1
4	8	6	5	1	2	3	9	7	7
7	9	8	6	5	1	2	3	9	7
1	4	5	2	3	8	9	7	6	6
3	6	2	7	9	1	4	8	5	1
8	2	7	9	1	4	8	5	1	9
6	5	4	1	7	9	2	3	8	4
9	3	1	8	2	5	7	6	4	9

ERAZA

5	3	9	2	4	1	8	7	6	5
7	4	2	9	6	8	5	3	1	4
6	8	1	3	5	7	4	2	9	6
9	7	6	8	1	5	2	3	4	5
8	1	4	5	9	3	2	2	6	7
2	5	3	4	7	6	9	1	8	1
3	2	5	3	4	7	6	9	5	4
1	9	5	6	2	4	7	8	3	4
4	6	8	7	3	5	1	9	2	5

ERRAZA

Ezer, 15. Aita.

Eskeer-ekunin: 1. Aduna, Gabey, 2. Biray, Hodi, 3. Kerhan, 4. Tironbi, 5. Jolia, Atsekabea, 6. Tiron, Atzerarazi, 7. Arraspas, Kabarey, 8. Kaikuva, Sakonora, 9. **Gotiti behera:** 1. Abio, Tak, 2. Dik, Iira, 3. Uretori, 4. Nariotok, 5. Loaz, 6. Han, Apa, 7. Gorbata, 8. Adlotz, 9. Bi, Isaka, 10. EAJ, Erak, 11. Kabo, 12. Aran, 13. Bare, 14.

Itziar Alkorta

BAKTERIOEN IKERLARIA



“Neurririk gabe erabili ditugu antibiotikoak”

EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Biokimika eta Biologia Molekularra saileko irakaslea da Itziar Alkorta Calvo (Valladolid, 1964) eta Biofisika Institutuko zuzendaria izan da 2015etik 2018ra. Bakterioek antibiotikoen aurkako erresistentziak nola garatzen dituzten ikertu du azken hogeitaz urteotan. Antibiotikoen erabilera neurrigabeak eragindako bakterio erresistenteen hedapenari oso kezagarria iritzita, haiei aurre egiteko estrategia berriak proposatu ditu.

TESTUA | **JABI ZABALA**
ARGAZKIAK | **ARITZ LOIOLA**

Bakterioek antibiotikoei aurre egin ikasten omen dute.

Bakterioek beraien genomak gene anitz dituzte, horiei esker garatzen dituzte beren funtzioak, baina horrez gain, bestelako DNA molekula txiki batzuk badituzte, plasmidoak, DNA molekula zirkularrak. Gene horiek ez dira bakterioarentzat ezinbestekoak, baina giro zailtan arrakastatsuak izateko ezaugarriak ematen dizkiete.

Horiek ez datozkie genetarik, hartu egin dituzte nonbait?

Bai, badituzte euren genomak funtsezkoak diren geneak, baina zirkular plasmido horietan badituzte hartutako ezaugarri osagarri batzuk: antibiotikoen kontra, metalen kontra, edo molekulen degradazioaren kontra bizirauteko trebetasuna ematen dietenak adibidez, eta batzuek besteei pasatzeko gaitasuna dute. Nola? Elkar ukitzen dutenean, hari moduko baten bidez, emaileak hartzaileari plasmidoak pasatzen dizkio. Prozesu honi konjuga-

zioa deritzo. Plasmidoa hartzen duenean erresistente bilakatzen da eta gainera, emaile bihurtzen da, antibiotikoen erresistentzia bere inguruko bakterioengana hedatuz. Bakteria batzuek plasmido bat baino gehiago hartu dezaketenez, antibiotiko askorekiko multierresistente bilakatzen dira, superbakterioak.

Oso hedatuta daude superbakterio horiek?

Ez oso, baina noizean behin ikusten da kasu larriren bat. Duela bi urte emakume bat zendu zen AEBetan, Indian hartutako infekzio baten ondorioz. Harekin 26 antibiotiko probatu arren ez zuten aurkitu bakterio haiek geldiaraziko zituen antibiotikorik. Ospitaletako bakterioak arriskutsuak izan daitezke, patogenoak izateaz gain erresistenteak direlako.

Antibiotikoak gaizki erabiliz sortu ditugu?

Bakterioek milioika urte daramate pla-

MIKROSKOPIOTIK GIZARTERA, FOKUA ZABALDUTA

“Proteina hauek aztertzen hasi nintzenean nire fokua oso murrizta zen. Orain ikuspegi zabalagoa dut, arazoa orokorragoa dela jabetuta. Zerbait lortzen ez badugu jendea hilko da, planeta geroz eta arriskutsuagoa izango da... Ikuspegi sozialagoa eman dit fokua zabaltzeak, eta pentsatzeak hau konpondu ezean, Osasunaren Mundu Erakundeak aurreikusten duenez, 30 urte barru minbiziak baino jende gehiago hilko dutela infekzioek”



netan eta euren artean komunikatzeko erabili izan dituzte antibiotikoak, baita defentsa moduan ere, baina guk suntsiketa arma moduan erabiltzen ditugu, desoreka sortzen duen eran. Haiek gabe ezin izango genuke egun daukagun bizitza modernoa izan, bizitza itxaropena luzatu digute, eba-kuntzak eta transplanteak ahalbidetu... baina gehiegizko erabilpenaren ondorioak ez genituen aurreikusi. Bigarren mundu gerraz geroztik barra-barra erabili dira antibiotikoak, medikuntzan baina baita abeltzaintzan ere, sendagai moduan ez ezik, prebentiboki, abereak gaixotu ez daitezzen eta arinago haz daitezzen. Neurririk gabe erabili dira, eta ondorioz, isurtzen eta hedatzen diren antibiotikoen kopurua handia da. Ur araztegieta, adibidez, antibiotiko asko detektatzen da.

Horren ondorioz erresistentziak ingurugirora hedatzen ari dira?

Bai, horregatik, NEIKER-Tecnalia, EHU eta Klima Aldaketa Ikergai (BC3) zentroak elkarlanean, *Joint Research Lab on Environmental Antibiotic Resistance* (JRL) ekimena

jarri dugu martxan, EAEko leku esanguratsu batzuetan antibiotikoen presentzia neurtzeko. Zein bakterio dagoen eta zein erresistentzia dauzkan ikusi, eta ondorioz, bakterioen artean erresistentziak zabaltzeko arriskuak neurtu ahal izango ditugu. Argazki zabala behar dugu bakterio erresistente horien aurkako estrategiak garatzeko.

Erresistentzien hedapena oztopatzea da zure proposamena?

Bai, proteina berezi batzuek ahalbidetzen dute konjugazioa, TrwB proteina akoplaztaileek, konektatu beharreko plasmidua sekrezio kanalararekin konektatzen dute. Gure planteamendua, nola funtzionatzen duen ikusirik, proteina hori eragozteko moduak bilatzea da, baina ez da estrategia bakarra, antibiotikoen presentzia kontrolatu behar da era berean.

Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

Une kritiko batean gaude, azken urteotan asko ikasi dugu proteina horri buruz, eta orain probei ekiteko garaia dela uste


dugu. Batetik, proteina zuzenki geldiarazten duten molekulak bilatzen ari gara, baina beste bide bat prozesuaren inhibitzaileak aurkitzen saiatzea da. Molekula pila identifikatu dugu eta horiekin guztiekin probak egin nahi ditugu, ea zeintzuek gelditzen duten prozesua.

Miikrobio onak ere badirela diote.

Bakterio gehienak onuragarriak dira guretzat. Oraindik ez dakigu zein den mikrobiotaren eragina osasunean, baina azkenaldion gure mikrobiotaren desorekak autismoan, alzheimerrean eta beste gaitz batzuetan eragina duela dioten ikerketak agertzen ari dira.

Antibiotikoak hartzean desorekak sortzen ditugu?

Beti. Antibiotikoek bakterioei eraso egiten diete, patogenoak zein ez patogenoak. Hartzen ditugunean, ia beti, beheakoa izaten dugu, gure hesteen mikrobiota kalte dagoelako, eta berreskuratu behar du gero bere oreka, berez, edo probiotikoek lagunduta. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

ARGIAk zubereraz mintzo den ingelesa fitxatu du kontalari bezala, Ertzaintzarekikoak bideratzeko



Dylan Denny-Stearn Inglis gaztea proposatu dute ARGIAko kazetari bipilek Ertzaintzarekin errelatore lanak egiteko, bi aldeen arteko hizkuntza-gatazka bideratzeko. "Ikusirik ertzainak ez direla gai euskara batuaz komunikatzeko, pentsatu dugu, agian, zuberera eta mandarinera ikasteko gai izan den mutiko honen bitartekaritzari esker gauzak konpon daitezkeela", adierazi du, Twitter bitartez noski, Laster Zapelatz kazetari eta "Eh! Eh! K soy periodista" liburu autobiografikoaren egileak.

Polemikaz galdetutaz, bizikidetzaren, subiranotasun partekatuen eta Euskadi auzolanean eraikitzearen alde, herritarrak euskaraz isuntzen eta jipoitzen Ertzaintzak egiten duen lan eskerga azpimarratu du Estopa Beltza de Herejia barne zail-buruak. 'Euskara bantuaren alde, hauteskundeak orain!', manifestazioaren amaieran oposizio politikoa oso zitriko azaldu da astekariaren proposamenarekin: "Azken 100 urteotan, ARGIA ikusten ari garena, ETaren agenda baitha". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Next to Gexto



Edo kaleko landarea



Gasteizko Massimo Dutti @josupuelles



DIKTADURA VENEZIARRARI "NAHIKO DA, EH TIO" ESATEKO PHOTOCALL-A ANTOLATU DUTE GAZTEAKO KIDEEK

Maduro Venezian egiten ari dena "super gaizki" iruditzen zaio Gazteako esatari bati

"Veneziako diktadura" egiten ari den basakeriak ikusita, ezin duela gehiago isilik egon erabaki du Gaztea irati-formulako Garazi Mondragon esatariak eta asteleheneko Dida Gaztea saioan Nicolas Maduroren kontra hitz egiteari ekin dio. "Osea, diktadore bat da, ez da batere arduratzen veneziarrekin. Super gaizki iruditzen zait. Venezia hondoratzen ari da bere kulpagatik", adierazi du ante-

nan. "Tope raiatuta nago, zeren uda honetan oporretan joan nahi nuen hara, baina martxa honetan gondolan ibili gabe geratuko naiz Maduroren kulpagatik". Egun berean entzule batek irratsaioaren Instagram kontuan erantzun die Venezia eta Venezuela bi gauza diferente direla, baina ordu-rako Kim Kardashianen azken modelitoan jarrita zeuzkan indar guztiak Gazteako ekipoak. ●



ARGIA

1919 · 2019



ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

1919 IRUÑEA, KAPUTXINOEN KOMENTUA **JATORRIRA BIDAIA**

 **ARGIA**

 **IRUÑEA**  **OTSAILAK 23 LARUNBATA**

EGITARAUA

11:00etan elkartu
Kaputxinoen Komentuan
Errotazar 42

Iruñean barna ibilaldia

12:30 Alde Zaharrear
GINKANA tematikoa:
euskara eta batasun nazionala

14:30 Zaldiko Maldiko
elkartean oturuntza*

*

Eguerdiko janaldian zenbat
izango garen jakiteko,
eman izena lehenbailehen:
argiak100urte@argia.eus

bizi nahi duen herria

100 URTE TXIKITIK ERAGITEN

 **#ARGIAk100urte**

T. 616 79 62 84 **E. argiak100urte@argia.eus**

WWW.ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

BABESLEAK:

